

398 zenbakia, 2000ko otsailaren 18a
JARDUN ELKARTEA


● Bergarako astekaria

Berrigara

Zuhaitz astea

Zapatuan landaketa
San Martzialen

OPEL



TALLERES OLA

Olabarren auzoa z/g.
Tf: 943 76 33 44 / 45 / 46 / 47.
BERGARA.

Zerbitzu ofiziala ARRASATEN:
TAKOLO AUTOAK, S.L.
Araba Etorbidea 3 (Eskatu edifizioa).
Tf: 943 79 05 86

OPEL KONTZESIONARIO OFIZIALAK, HOBEAK

BOLU



GIMNASIOA



Mantenimendua



Harrera



Arduradun berriak
zuen zerbitzura!



Masajista tituluduna eta osteopata



Muskulazioa. SHEE/IVEFeko irakaslea



Hidromasajea eta sauna



Karatea. Kyokushinkai. 3. Daneko bi irakasle



Aerobika. Bi irakasle tituludun



Solariuma

- Gehien komeni zaizun orduan etor zaitezke
- Nahi duzun beste ordu egin dezakezu egunean, zeure erara banatuta
- Gainera, nahi beste kirol-mota egin dezakezu egunean
- Sauna eta hidromasajea DOAN
- Zapatuetan, sarrera DOAN

Astelehenetik eguakitzera: 08:30-12:30 eta 15:00-22:00
Zapatuetan: 10:00-14:00



Aranerreka 9

943 76 72 91

5 gela

600 m² baino gehiago



Michèle Alliot-Marie

Markos Balentziaga / Irakaslea

BERRIGARA irakurten dogun inguru honetan Michèle Alliot-Marie izen-apelliduak apenas doguzen ezagunak.

Baten batek, akaso, eskumatik ez-kerrera leittu bihar ote diran be pentsau dau idazkixaren izenburua ikusitta.

Ez, madame Alliot-Marie-ren izen-apelliduak ezkerretik eskumara eskribitzen, leitzen eta esaten dira beste edozeiñenak letxe. Baña egixa da izenaren ugazaba-andriak mundua eskumatik begiratuta ikustia gurago dabena, ezkerretik baño.

Madame Alliot-Marie –*Mam* be esaten ei dotsa bere gertueneko jendiak motz-mótzian– Frantziako presidente dan Chirac-en alderdiburu aukeratu zeben joan dan lotazil –abendu– hasieran, botuen ehuneko hirurogei baño gehixaorekin. Politikan, dana dala ez da katamarrian ointxe hasittako ume-gorritxua, gaur dana izatera etorri baño lehenago be ministro izanda dago eta, esaterako.

Mam andria ez dau edozeiñ Frantziako eskuma politikuak.

Donibane-Lohizuneko –San Juan de Luz-ko– alabia sortzez, une honetan bertako alkate be bada, eta europar izateko ahuntzaren gaberdiko eztula baño gehixua dana: swahilia –Afrika-ko lautada zabaletan erabilten dan hizkuntzia– eitteko gauza da.

Bere berrogeita hamahiru urte sa-soikuetan egun biz bat antxixika perra-hots haundi barik jardutiaz gañera, ez edan eta ez erre eitten dau, ur minerala eta kaloriak baño.

Argi dago *Mam* genero korrienteko piezia ez dana. Ez horixe!

“Euskeriak koru(eta)rako balixo dabena kantu zaharra dogu. Baña eliz atarirako madame Mam-ek aurkitu dotsan balixo erantsi berrixa nobedadetxua da”

Hara: behiñola periodista zorritzote batek galdetu zotsan, Lohizuneko alaba eta alkate izanda... ia zer moduz konpontzen dan Pirinio mendebaldeko swahili autoktonuan...

–Bi gauza eitten dittut airoso hizkuntza horretan –erantzun zotsan di-dabatian–: bata, etsai politikoei iraiñ; bestia, parrokixako koruan, kantau!

Hor ba! Iñok Alliot-Marie andria Piriniotako swahilian aziaren barrengo ostrua zala pentsatzen bazeban, konponduta dago! Beittu zer eitteko gauza dan: eliz ataxan mintza-praktika, koruan kanta-praktika! Zetan afinatzen ote dau zorrotzen?

Euskeriak koru(eta)rako balixo dabena kantu zaharra dogu. Baña eliz atarirako madame *Mamek* aurkitu dotsan balixo erantsi berrixa nobedadetxua da. Pentsatzen dodan bakoitzian barruosua zukuruzten jat: gure artian dabitzen miguelsanz, nanobenegas eta oreja guztiak, egunen baten, etsai politikuak, *Mamen* erara, aurrian hartu bihar badittue... errukiñak gure belarrixak eta gu-geu!<

barruan




Tomasa Zabaleta

San Joxepeko presidentea

“Pertsona batek jubilatzen denean bere bizitza programatu egin behar du”

8.



Balentin Egidazu

Futbol epaile kolaboratzailea

“Azpiko kategorietan jokalarien portaera entrenatzailearengandik hasten da”

23.



L. Arrizabalaga

Pilota zalea

“Oingo pelotaririk onena Titin da. Forma danetan sartzen da: sotamanoz, boleaz...”

29.

Farmaziak

Eguakitza 18:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

Zapatua 19:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.

Domeka 20:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.

Astelehena 21:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

Martitzena 22:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

Eguaztena 23:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

Eguena 24:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

Ogia

Domeka 20: Ogizun.

zozketak

BONO LOTO

Eguakitza 11

9-14-30-36-38-41 (osag.39/itz.3)

Astelehena 14

3-13-27-32-42-44 (osag.45/itz.2)

Martitzena 15

18-20-22-23-45-47 (osag.33/itz.9)

Eguaztena 16

1-3-8-16-17-41 (osag.28/itz.7)

PRIMITIVA

Zapatua 12

1-11-16-17-30-45 (osag.8/itz.7)

Domeka 13 Saritzarra

2-22-29-30-35-37 (osag.25/itz.1)

ONCE

Eguakitza 11: 56.312 (031 seriea)

Domeka 13: 26.881 (021 seriea)

Astelehena 14: 95.456

Martitzena 15: 79.538

Eguaztena 16: 46.507


hau be badou?

Buru azkarra

AEBetako Johns Hopkins ospitaleko ikerlariek pentsamenduaren abiadura neurtu dute. Objeto bati begiratzeko diogunean, 0,25 segundu behar ei dugu detaileez konturatzeko eta 0,4 zer den jakiteko. Objektua ezaguna bada, prozesua oraindik ere azkarrago egiten dugu.


Eguraldia

Igeldoko metereologi behatokia



Zapatua 19

Erabat estalita agertuko zaigu zerua eta tarteka euria ere egingo du han hemenka. Zapatuan, haizeak iparmendebaldetik joko du.



Domeka 20

Hodeiak nagusituko bazaizkigu ere, ostarteak zabalduko dira eta urdinguneak ikusiko dira zeruan. Haizeak iparretetik joko du.

Ilargiaren aldiak



Ilbete: otsailak 19



Ilbehera: otsailak 27




Ilberri: martxoak 6




Ilgora: martxoak 13

Eguzkia

Domeka, otsailak 20



Sortu: 08:05



Gorde: 18:57

Temperaturak eta euria Bergaran

Elosu: Joxean Azkarate
San Juan: Luis Mari Agirre

	Elosu			San Juan		
	max. °C	min. °C	euria l/m ²	max. °C	min. °C	euria l/m ²
Eguena 10	12,5	5,5	4,5	16	1	4,4
Eguakitza 11	6,5	2,5	-	8	6	-
Zapatua 12	7	2	-	12	0	-
Domeka 13	8	1,5	18	13	-2	9,7
Astelehena 14	8	3,5	9,6	12	9	4
Martitzena 15	9	3,5	6,8	15	8	4,2
Eguaztena 16	7	4,5	27,6	11	8	32,5

bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

Aupez, aupeza, aupetz

Ahotik botatzen den haizea. Korroskara.

- Bazkai astuna eññ ddot eta "Sal de frutas" artu biot, ia aupez batzuk botatzen dittuen ero.



Telefonoak

OSASUNA / LARRIALDIAK

SOS deiak	112
DYA	943 76 71 57
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdiak	943 46 11 11
Anbulatorioa (txanda)	943 76 24 40
Anbulantzia	943 55 49 62
Udaltzaingoa	943 77 91 06
Ertzaintza	943 76 53 40
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Osasun Etxea	943 76 24 40
Arrasateko ospitalea	943 03 53 00
Asepeyo	943 76 16 43
Pakea	943 76 13 49
Angiozarko medikua	943 78 90 27
Antzuolako medikua	943 76 62 23

GARRAIOAK

Euskotren	943 45 01 31
PESA	902 10 12 10
Taxiak	943 76 19 50
RENFE	943 28 35 99

UDALA

Udaletxea	943 77 91 00
Udal Artxiboa	943 77 91 32
Igerilekuak	943 76 20 51
Kultur Etxea	943 77 91 58
Liburutegia	943 77 91 62
Mizpirualde Egoitza	943 76 13 68

BESTELAKOAK

Epaitegia	943 76 14 92
Erregistroa	943 76 13 15
Jardun	943 76 36 61
Jubilatuena Etxea	943 76 21 40
Postetxea	943 76 26 85

hildakoak

BERGARA

Angelita Urmeneta Garcia
Otsailak 12, 72 urte
Pedro Alkorta Mujika
Otsailak 15, 79 urte

jaiotakoak

BERGARA

Faysal Akkouch Danouh
Otsailak 2
Jone Murgiondo Diaz
Otsailak 6
Danel Murgiondo Diaz
Otsailak 6
Narrea Mendizabal Crespo
Otsailak 7
June Alberdi Juaristi
Otsailak 9

zorion agurrak



Aitor de Benito
Otsailaren 24an
6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Nekane Ezkurra
Otsailaren 22an
5 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Rosendo Perez
Otsailaren 19an
68 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Ander Narbaez
Otsailaren 19an
9 urte. Urte askotarako!
Familiakoak eta lagunak.



Xabier Labaka
Otsailaren 24an
6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Eider Monkaioia
Otsailaren 21ean
2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Neomi Sanchez
Otsailaren 24an
9 urte. Urte askotarako!
Familiakoak eta lagunak.



Maialen Odriozola
Otsailaren 24an
8 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Nerea.



Nerea Jauregi
Otsailaren 24an
33 urte.
Urte askotarako!
Amilotzeko lagunak.



Marian Etxezarreta
Otsailaren 21ean
4 urte. Urte askotarako!
Etxekoak.



Jon Arrese
Otsailaren 23an
10 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Jone Agirrezabal
Otsailaren 19an
6 urte. Urte askotarako!
Garazi, Aitor, aitaxo eta amatxo.



Iker Coranti
Otsailaren 21ean
17 urte.
Urte askotarako!
Lehengusuak.



Aitor Astorkia
Otsailaren 22an
10 urte. Urte askotarako!
Etxekoak eta Maisus.



Laiene Mendibil
Otsailaren 22an
16 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Isabel Ruz
19an 56 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak, Miriam eta Christian.



Sandra Bretaña
Otsailaren 18an
11 urte. Urte askotarako!
Etxekoak, Ana eta Maitane.



Ane Laskurain
Otsailaren 20an
urtebete.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Aitor Oregi
Otsailaren 21ean
9 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Aitor Ugarte
Otsailaren 18an
15 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Naiara Luarizaristi
Otsailaren 19an
12 urte. Urte askotarako!
Etxekoak.



Jon Ander Perez
Otsailaren 20an
2 urte. Urte askotarako!
Etxekoak eta Maialen.

Hurrengo alean,
OTSAILAREN 25a eta
MARTXOAREN 2a

bitartekoen zorion agurrak
argitaratuko ditugu.

URTEURRENA

Nikolas Larrañaga Arana

Lehen urteurreneko meza
domekan, otsailak 20,
eguerdiko 12:30etan, San Pedron.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Luis Elguero Losada "Takolo"

Lehen urteurreneko meza
domekan, otsailak 20,
eguerdiko 12:30etan, San Pedron.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Estefania Urriategi Ariznabarreta

Lehen urteurreneko meza
domekan, otsailak 20,
eguerdiko 12:30etan, San Pedron.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Angelina Urmenea Garcia

Bergaran hil zen
2000ko otsailaren 12an,
72 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkigutenei
eskerrik asko sendikoen izenean.

ANTZERKIA

► **Muac taldearen "Thelma y Louise"** antzezlan domekan, hilak 20, 21:30etan Go-Jam aretoan. 400 pezeta.

MUSIKA

► **Jam.** Otsailaren 25ean, **Lin Ton Taun** eta **Kaffa** eta hilaren 26an, **Pennywise.** Hilaren 27an, **David Duran** eta **Maribel bikotea** (kitarra eta bibolina) Go-Jam-en.

► **Aitzol Mujika** eta **Ibon Larrañaga** gaur, eguakitza, Elgetako Gaztetxean, 23:00etan.

► **Pedro Herrero** gaur, eguakitza, 22:30etan Soraluzeko Gaztelupen. Domekan, toki berean, **Chema Vilchez jazz fusion Quartet**, 21:30etan.

ERAKUSKETA

► **Susana Gomez**en oleoak Nahikarin, martxoaren 3ra arte.

► **Benito Cantero**ren argazkiak Donostiako Caravanseria kafetegian (San Bartolome, 1).

► **"Hondakinak gutxitu eta birziklatzea"** eta **"bitxien"** erakusketa Kultur Etxean hilaren 21etik 27ra.

LEHIAKETA

► **Gazte Informazio Gunea**

KONTZERTUA

La Polla

Non: Jam aretoan
Noiz: bihar, zapatua, 22:00etan
Sarrera: 1.200 PTA. 1.500 PTA takilan

La Polla talde ezagunak kontzertua eskainiko du bihar, zapatua, Jam aretoan. 1982. eta 1984. urteetan "¿Y ahora qué?" eta "Salve" diskoak kaleratu zituztenetik nafarrek egundoko arrakasta lortu zuten, eta oraindik ere hortxe ditugu, zuzeneko emanaldietan orduko indarra erakutsiz, deabruarekin pakturen bat sinatu balute bezala. 1998an zuzenean grabatutako "La Polla en tu recto" izenburuko diskoa plazaratu zuten; bertan beraien abesti ezagunenak biltzen zituzten. Evaristo kantariak eta bere taldekideek harrera ona jaso zuten publikoaren artean eta gaurko gazteriaren artean ere jarraitzaileak badituztela erakutsi zuten. Ondoren, "Toda la puta vida igual" lana etorri zen, konformismoa, komunikazioa, inperioak edota kaskarkeriaren aurkako abestiak jorratuz.

Gehienetan letxe txarrez idatzitako abesti laburrak dira eta, kritika adituaren arabera, "Maigeneration", "La Gambera", "Tumba 37", "Shan-

ti" edota "Está todo muy mal" abestietan taldeak bere maisutasuna erakutsi du; hainbat kantutan ironia ere nabaria da. Oraingo honetan, Eric Clapton, faszismoaren aurka borrokatu zutenak, gobernuz kanpoko erakundeak eta beste hainbat gai izan dira nafarren inspirazio iturri. Esan bezala, ibilbide luzea bete du La Pollak azken 18 urteotan, baina gogorik ez zaie falta errepidean jarraitu eta bere jarraitzaileen kontzientziak astintzeko. Jarrera hurbiltzen direnek azken punk taldeetako baten gaurkotasuna frogatu ahal izango dute bihar. La Pollaren aurretik, Non Demontre taldea arituko da telonero.



La Pollaren azken diskoaren azala.

iragartzeko kartel lehiaketa, Bergaran ikasi, bizi edo lanean ari diren 15 eta 26 urte bitarteko gazteei zuzenduta. Lanak aurkezteko epea martxoaren 11n bukatuko da. Irabazleak 50.000 pezeta eskuratuko ditu. Argibide gehiago, 943 77 91 57 zenbakian.

IKASTAROAK

► **Moises Aspiaz**u dantza taldearen eskutik, helduei zuzendutako arin-arin eta fandango ikastaroak zapatu goizetan. Argibideak, 943 76 15 40 zenbakian.

DEIAK

► **Gazte lokalaren** aldeko kolektiboak deituta, herriko musika taldeen lokalaren aldeko kalejira egingo da gaur, eguakitza, 19:30etan, Seminarriotik hasita.

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8 ☎ 943 76 15 09

ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

A
R
R
A
N
O



Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA

► **Debagoieneko Abeltzainen Elkartearen** ohiko bilkura orokorra domekan, hilak 20, Antzuolako Udaletxean, 11:30etan.

► **Ardo dastaketaren** hasia-pena, **Diego Sotelo** sumilleraren eskutik, egunean, hilak 24, 19:30etan Gure Ametsa elkartearen.

► **EAJ.** Martxoaren 12ko hauteskundeetan botoa korreoz eman nahi dutenentzat Batzokian bulegoa zabalik izango da asteleheneetik ostiralera, 19:00etatik 21:00etara. 943 76 47 00.

► **Pazkuetan Bideberriko rock kontzertuak** antolatzeke bilera egingo da eguaztenean, hilak 23, 19etan Kultur Etxean.

► **EA.** Martxoaren 12ko hauteskundeetan botoa korreoz eman nahi dutenentzat Alkartetxean (Barrenkalea, 18) bulegoa zabalik izango da: goizez, 11etatik 12etara; arratsaldez, 18:00etatik 20:00etara.

► **Jose Mari Etxanizen aldeko ekitaldiak:** gaur, eguakitzan, Hika antzerki taldearen emanaldia, 23:00etan, Pol-Polen; bihar, zapatua, autobusa aterako da 6:15etan Salamancako Topas espetxera Etxanizi elkartasuna adierazteko eta, 20:00etan, manifestazioa egingo da. Manifestazioaren ondoren, mariskadaren zozketa egingo da. Azkenik, domekan, hilak 20, ekitaldi politikoa eta Etxanizen senideei omenal-

dia, 19:00etan, Udal Pilotalekuan, bertsolariak, kantariak eta preso ohien partaidetzarekin.

► **Euskal presoak Euskal Herrira** taldeak dei egiten die taldean parte hartzeko interesatuei, martitzenero 20:00etan Kultur Etxean egiten den bilera agertzeko.

► **Oñatiko Ingurugiro Astearen** barruan, astelehenean Juan Balek "Erikaren kasua: itsasoaren etorkizuna" izenburuko hitzaldia emango du; martitzenean, "Agenda 21; garen jasangarrirako udal proiektua", Ane Velascoren eskutik; eguaztenean, hilak 23, Jose Mari Satrustegik "Natura euskal mitologian" gaiari buruz jardungo du, eta eguakitzean, otsoaren egoera eta bidegarritasuna Euskal Herrian izango da aztergai, Mario Saenz de Buruaga biologoaren eskutik. Hitzaldi guztiak Oñatiko Natur Eskolan izango dira 19:00etan.

► **Odol ateraldia,** eguaztenean, hilak 23, 18:30etan Seminarioko lokalean.

► **Txapa Irratia.** πLT taldeari elkarriketa egunean, hilak 24, 19:00etan.

KINTADAK

► **1975ean jaiotako**en bazkaria Zabala jatetxean martxoaren 11n. Izen-ematea (3.000 pezeta) Kutxako kontu zenbakian (0122922040) otsailaren 29ra arte.

Z I N E A

KARTELDEGIA

BERGARA. Novedades Secuestrando a la Srta. Tingle
Eguakitzan: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00.

Musica del corazon
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena, ik. eguna: 19:30.

Proxima parada Wonderland
Eguena, zine-kluba: 20:00.

ARRASATE. Alai zinema Goya en Burdeos
Eguakitzan: 22:00.

Sleepy Hollow

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.

Astelehena: 19:00, 21:30.

Martitzena, ik. eguna: 19:00, 21:30.

ARRASATE. Amaia

Amigos y vecinos
Eguena, zine-kluba: 21:30.

EIBAR. Unzaga

El coleccionista de huesos
Eguakitzan: 22:15.

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena: 19:30, 22:15.

Martitzena: 19:30, 22:15.

Eguaztena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

EIBAR. Rialto

Todo sobre mi madre

Eguakitzan: 22:15.

Zapatua: 19:30, 22:15.

Domeka: 19:30, 22:15.

Astelehena: 19:30, 22:15.

Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

Tarzan en la ciudad perdida

Zapatua eta domeka: 17:00.

OÑATI. Santana

Las huellas borradas

Eguena, zine-kluba: 20:00.

ELORRIO. Arriola

El fin de los dias

Zapatua: 22:30.

Domeka: 20:00.

Astelehena: 20:00.

Los teleñecos en el espacio

Domeka: 17:00.

La cena de los idiotas

Eguena, zine-kluba: 20:00.

SECUESTRANDO A LA SRTA. TINGLE

Zuzendaria: Kevin Williamson.
Aktoreak: Helen Mirren, Katie Holmes, Jeffrey Tambor. ≥ 13 URTE
Leigg Ann (Katie Holmes), Grandsboro institutuko ikaslerik bikainenak eta guapoak aukeraz beteriko etorkizuna dauka, eta beka bat eskuratzeko zain dagoenean, ikasleak bereari gogor eusten dion *Tingle* irakaslearekin egingo du topo...

MUSICA DEL CORAZON

Zuzendaria: Wes Craven.
Aktoreak: Meryl Streep, Aidan Quinn, Angela Basset.
ADIN GUZTIAK
Roberta Guaspari (Meryl Streep) musika irakaslearen senarrak bere emaztearen lagun minarekin alde egitea erabakiko du, eta *Robertak* bizimodu berri bati ekingo dio New Yorkeko auzorik arriskutsuenetako batean. Bertan, zailtasun asko gainditu beharko ditu aurrera egin ahal izateko.

PROXIMA PARADA...

Zuzendaria: Brad Anderson.
Aktoreak: Hope Davis, Alan Gelfand, John Benjamin. ≥ 18 URTE
Zine-klubean bigarren aldiz iragarrita, Frantziar, Deauvilleko Zine Jaialdian, publikoaren eta epaimahaiaren saria eskuratu zituen filme honek. Tren batean topo egiten duten erizain emakumezko bat eta akuario batean lan egiten duen gizonaren artean sortzen den harremana kontatzen zaigu.

BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketen erantzukizunik.

izeder

ARTE DEKORATIBOKO
ikastaroak

943 76 71 05. Arruriaga 2

IRURAK PINTURAK O.E.

ERA GUZTIETAKO LANAK PAPER PINTATUAK
MOKETA ETA SINTASOLA HAREA ZORROTADA
IZTUKU ESPONJATUA IZTUKU FALTSUA

AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA
TELEFONOAK: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
FAXA: 943 76 09 32



Tomasa Zabaleta orain dela lau urtetik da San Joxepeko presidentea, eta duela hiru urtetik Debagoieneko jubilatuen juntako presidentea. 69 urte dituen arren, ez da ez, geldi egoteko jaiotakoa, urtarriletik Gipuzkoako Adinduen Kontseiluko presidenteordea ere bada.

G. Zer da Gipuzkoako Adinduen Kontseilua eta zeintzuk dira bere helburuak?

E. Kontseilu hau ordezkari organu bat da, hainbat elkarte eta entitatetako ordezkariak osatua. Gizarte-kintzaren barne sortua da, eta berarekin kolaboratu eta lan egingo dugu. Gure helburu nagusiak, Gizarte-kintzak adinduendako egin beharreko politiken diseinuan, diseinu hauek martxan jartzeko eta jarraipenean parte hartzea da. Orain, adibidez, plan gerontologiko bat egiten hasiko gara.

G. Askotan esaten da pertsona batek jubilatzen denean, ez dakiela zer egin, ezertarako balio ez duen sentazioa izaten duela. Zer esango zenioke jende horri?


E. Jendeak bizitza guztia pasatzen du lanean, eta lanean diharduen bitartean bizitza programatuta dauka. Baina jubilatutakoan, zeu bihurtzen zara zeure enkargatu, jefe. Era askotara bizi dezake bere bizitza jubilatutakoan: denbora pasatuz, entretenituz edo era positibo batean bere bizitza antolatuz. Etapa hau oso garrantzitsua izaten da, eta norberak erabaki behar du zela bizi nahi duen jubilatzea.

Dena dela, iruditzen zait bizitza programatu egin behar duela jubilatutakoan. Bakoi-tzak bere bizitza proiektua egin behar du. Bizitza proiektu bat egiten duenak,

TOMASA ZABALETA

Gipuzkoako Adinduen Kontseiluko presidenteordea

“Kontseilu honek Gizartekintzarekin kolaboratu eta lan egingo du”



Tomasa Adinduen Kontseiluko presidenteorde izendatu dute.

DV

oso pausu garrantzitsua eman du, proiektu horretan oinarrituz ekingo baitio bere bizitza berriari.

G. San Joxepen ekitaldi ugari antolatzen duzue. Jende asko animatzen da antolaketa lanetan parte hartze-
ra?

E. Antolaketa lanetan San Joxepeko juntakoak aritzen gara. Datorren astera-

“Fededunok beti gara gazteak, bizitza inoiz bukatzen ez den zerbait bezala ikusten baitugu, eta horrek indarra ematen dizu”

ko, adibidez, Bergarako historiari buruzko hitzaldi ziklo bat antolatu dugu. Aurrera begira ere beste hitzaldi batzuk antolatzen dihardugu, eta nik uste dut jendearen erantzuna oso positiboa izaten dela normalean. Kultura aldetik, oso maila garrantzitsua lortu dugula uste dut.

Aurrera begira, gure helburua San Joxepen antolaketa lanetarako boluntario talde bat osatzea da. Komunikazio eta partizipazio mailan aurrera pausuak eman nahi ditugu.

G. Nondik ateratzen duzu hainbeste jarduera gauzatzeko indarra?

E. Oso galdera ona da. Nik uste dut hiru aldetatik datorkidala indar edo motibazio hori. Alde batetik, niri beti gustatu izan zait egitura aldetik lan egitea, iruditzen zaidalako, zuk egitura batean kultura sortzen baduzu, hori gelditu, mantendu egiten dela. Kultura organizatibo, partizipatibo bat sortzen baduzu, kultura sortzen duzu. Nire lagun batek esaten duen bezala, egitura bateko kideak joango dira, baina kultura organizatiboa mantendu egiten da, eta horrek izugarri motibatzen nau. Bigarren, hainbeste eman didan gizartearekiko zordun sentitzeak ere lanera bultzatzen nau.

Eta beste alde batetik, fedea da izugarritzko indarra ematen didana. Nik Elizaren organuetan lan egin izan dut, eta uste dut fededunok gure indarrak Eliza barruan lan egitera mugatu ditugula, eta gaur egun izugarri motibatzen nau fededun bezala erakunde zibikoetan lan egiteak. Gainera, fededunok beti gara gazteak, bizitza inoiz bukatzen ez den zerbait bezala ikusten baitugu, eta horrek energia, indarrez betetzen nau.

Jose Mari Etxaniz presoaren aldeko ekitaldiak izango dira astebukaeran

Bihar, zapatua, espetxeratu zutenetik 20 urte beteko dira

Bihar, zapatua, otsailak 19, Jose Mari Etxaniz espetxeratu zutenetik 20 urte beteko dira. Hori dela eta, Etxanizen aldeko plataformak antolatutako ekitaldi programari bukaera emango zaio astebukaeran.

Gaur gauean, Hika antzerki taldearen emanaldia izango da 23:00etatik aurrera Pol-Polen eta bihar, zapatua, autobusa aterako da 6:15etan Salamancako Topas espetxera Etxanizi elkartzasuna adierazteko. Gogoratuko duzue, Jose Mari Etxanizek 1995ean zigorraren hiru laurdenak bete zituen, baina oraindik ez diote askatasunik eman, plataformak hainbat errektutso aurkeztu dituen arren. Jose Mari Etxaniz bederatzi espetxetan egon da preso eta joan zen irailetik Salamancako Topas espetxean dago, isolamendu egoeran.

EKITALDI POLITIKOA

Bihar, 20:00etan, Etxanizen aldeko manifestazioa egin-



Argazkian, San Martin Plazan zapatuan jokaturako futbito solidarioaren irudi bat.

go da herriko kaleetan, eta jarraian, mariskadaren zozketa izango da. Plataformak prestatutako programari amaiera emateko, berriz, domekan, otsailaren 20an, ekitaldi politikoa eta Etxanizen senideei omenaldia izango dira, 19:00etan Udal Pilotalekuan, besteak beste, bertsolariak, kantariak eta preso ohien partaidetzarekin.

Joan zen asteburuan ere hainbat ekitaldi egin ziren Etxanizen omenez; eguakitzean, Ene Bada musika taldeak kontzertua eskaini zuen Pol-Polen, eta zapatu arratsaldean, futbito solidarioa izan zen San Martin Plazan. Solidarioen eta "guardiazibilen" arteko partiduak ikusmin handia sortu zuen, eta jende ugari bildu zen bertan; ikusleek parodiare-

kin eta bozgorailuetatik partidua erretransmititu zuenaren komentarioekin primeran pasatu zuten. Bestalde, Etxaniz-Elkoro eta Olaizola-Zezeaga pilota partiduaren atarian ere, "Etxaniz askatu. Legea bete dezatela" eta "Euskal preso eta errefuxiatuak etxera" zioten pankartak erakutsi zituzten Udal Pilotalekuan Etxanizen aldeko plataformakoek.

Lizarra Garazi Akordioa aztergai

"Zertan datza Lizarra-Garazi Akordioa?" hitzaldiak 80 lagun inguru bildu zuen aurreko eguenean Udaltxean. Joxe Iriarte "Bikila" Zutikeko kidea, Leire Txakartegi (ELA), Markel Olano (EAJ), Joxe Agustin Arrieta (HB) eta Pello Urizar (EA) izan genituen hizlari. Guz-

tiak bat etorri ziren Akordioa bultzatzen jarraitzeko garrantzia azpimarratzeko orduan eta hauteskunde osterako kanpaina berri bat egingo dela aurreratu zuten. Azkenaldian hainbat sektoretatik Akordioaren kontrako iritzia jaso arren, hizlariak baikor azaldu ziren.





Lanak direla eta, trafikoa hainbat arazo sortuko dira udara bitartean.

Osintxuko bidegurutzeari hobetzeko lanetan ari dira

Lanak ekain aldera bukatuko dituzte

Azken egunotan Zaurtzeko Sohercon enpresa Bergararik Osintxura sartzeko bidegurutzeari zabaldu eta bihurtzea zuzentzeko lanetan ari da. Aipatutako lanak 500 metroko tartean egingo dira eta aurrekontua 71 milioi pezetakoa izango da. Sohercon enpresako arduradunen arabera, lanak ekain aldera amaituta egotea espero da. Lanen helburua Osintxuko barianteko irteeran dagoen kurba leuntzea da eta horretarako, Bergararik goazela, ezke-

rraldean, bariantea baino lehen dagoen mendian lurra kendu eta errepidea zabaldu egingo da tarte horretan. Era berean, barianteko zubia zertxobait zabaltea jasotzen da proiektuan. Beste nobedadeetako bat zera izango da: Sorluzetik Bergarara bidean, aipatutako puntuan, Osintxura sartzeko aukera izango da lanak bukatutakoan. Horretarako orain arte izan diren isloetak aldatu egingo dira eta. Era berean, Bergararik Osintxura sartzeko 25 metroko

luzerako itxoiteko karrila egingo du Sohercon enpresak. Lanak Gipuzkoako Diputazioak ordainduko ditu.

Diputazioak aurten egin beharreko beste lanen artean, San Juaneko zuzeneko zatia konpondu eta zabaldu egingo da. Era berean, San Prudentzio eta Epeleko bidegurutzeari bitarteko zatia ere hobetzeko asmoa dago eta, azkenik, Beasain-Durango korredoaren barruan, Bergarako ekialdeko saihesbideari lehentasuna emango zaio.

EAJ-EA eta PPk EHren mozioari ezezkoa

Astelehenerako Plenon EAJ-EA eta PPko zinegotziek atzera bota zuten EH alderdiak martxoaren 12ko hauteskundeetara aurkezturiko mozioa. EHko idatzia hainbat hiritarrek sinatu zuten. Bertan, zera jasotzen da: "Euskal Herriak ez zuen 1978ko Konstituzio arrotz hori berretsi. Konstituzioak ez du onartzen Euskal Herriak hitza eta erabakia izaterik. Euskal Herria gure herri bakarra da eta beraz espainiar gorte horiek ez gaituzte ordezkatzeko. Euskal Herria nazioa da eta bere kabuz libre eta demokratikoki erabakitze eskubidea dauka".

Udalbatzak hauteskunde mahaietan lehendakari eta bokal gisa zein herritar izango diren egin beharreko zozketaren aurrean, EHren jarraitzaileek beraien izena kontuan ez hartzea eskatu zuten. EAJ-EA eta PPko zinegotziek ezezko botoa eman zuten. PSE-EEko ordezkaria ez zen Plenon izan. EHko bozeramalearen arabera, "hauteskunde hauek ez dira euskaldunak, espainolak baizik, eta abstentzioaren aldeko egingo dugu".

DEBA GARAIA
INMUEBLE ETA FINANZIA AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telefonoz Aranzadi 2 behean
943 76 21 80 / 943 76 06 37



KORTA-ZAR
Txokolategia

Pintxo eta ogibartekoan
espezialitatea

Barrenkalea 16 ☎ 943 76 20 62

DENA
100etik

ZURE OPARIENTZAKO

Simon Arrieta 3

Zuhaitz Astea landaketarekin amaituko da

Bihar, zapatua, San Martzialen 100 gaztainondo landatuko dira

Bihar San Martzialen egingo den zuhaitz landaketak amaiera emango dio Udaleko Ingurugiro Batzordeak aurten antolatutako Zuhaitz Asteari. Landaketa egin aurretik ingurugiro heziketan diharduen Kaskabeltz taldearen eskutik ibilaldi gidatua egingo da. Iteera goizeko 10etan Oxironoko azoka parean izango da eta Ingurugiro Batzordeak herritar guztiei biharko ekitaldietan parte hartzeko gonbidapena luzatzen die. Landaketari dagokionez, 100 gaztainondo sartuko dira San Martzialen. Beste urte batzuetan ere bertan eta Pol-Poleko iturriaren inguruan egin izan da Zuhaitz Eguneko landaketa.

Bestalde, astean zehar ere lehen hezkuntzako 6. maila eta DBHko lehen zi-

kloko ikasleei zuzenduriko hitzaldiak eman ditu Kaskabeltz taldeak. Era berean, Mendia Bizirik talde ekologistak ere Zuhaitz Astearen hartu du parte; ikasle guztiei zuhaitz bana eman zaie, beraiek nahi duten edo ahal duten txokoan landatzeko.

Horrez gain, Udalak 24 orrialdeko libururuxka bat kaleratu du, bertan zuhaitzen garrantzia, bertako espezie garrantzitsuenak eta landaretzarekin zerikusia duten beste hainbat gai jasotzen direlarik. Guztira, liburuxkaren 2.500 ale kaleratu dira eta dagoeneko banatzen hasi dira.

Bestalde, aurreko zapatuan, goizez, zuhaitz landareen lehen azoka berezia egin zen San Martin Plazan eta herritar ugari bildu zen bertara.



Aurreko zapatuan San Martin Plazan egindako zuhaitz landareen azokako bi irudi. Herritar ugari hurbildu zen bertara.



Ikasleen protestaldia

Ikasle Abertzaleak taldeko kideek protestaldiak burutu dituzte azken egunotan, benetako hezkuntza euskaldun bat aldarrikatuz. "Testuliburu espainolak kanpora!!" dioen pankarta erakutsiz, martitzen eta eguenetan, eguerdiz, enkartelada egiten ari dira Ikasle Abertzaleakeko kideak. Ekintza hauekin erabili behar izaten duten gaztelerazko argitaletxeen aurkako protesta egin nahi dute.

ARREGI

Eraikuntza materialak

Bittegia Tellerian, Labegaraletan.
Tf. 943 76 27 93

etxalar

**kafetegia
kruasantegia**

Boni Laskurain 4
943 76 50 68

**ileapaindegia
eder gela**

— disdira —

Masterreka 7 • Tf. 943 76 00 55

Sugoi

**ERLOJUAK, ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULADORAK...**

Irizar pasealekua 2 behea
☎ 943 76 59 54 BERGARA

Berrigara

398 zenbakia.
2000ko otsailaren 18a.

Errotalde Jauregia. 20570 Bergara
Telefonoa: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Eneko Azkarate.

Erredakzioa: Eneko Azkarate,

Edu Mendibil, Estepan Irizar.

Maketazioa: Iñaki Iturbe.

Publizitatea: Uxue Zabaleta.

Harpidetzatzailea: Itziar Kortabarría.

Testuen zuzenketa:

Estepan Plazaola, Alex Labaien,

Maripi Laskurain.

Erredakzio kontseilua:

Miguel Angel Elkoroberebar,

Alex Labaien, Estepan Plazaola.

Komikiak: Bittor Rodriguez, Alex

Ugalde, Gorka Ortega & Jon Alvarez,

Unai Azkarate, Usoa Mendikute.

Kolaboratzaileak: Juan Martin

Ellexpuru, Josu Okina, Luis Mari

Agirre, Joxean Azkarate,

Antxon Agirre Sorondo.

Banaketa: Txantxangorri taldea.

Inprimategia:

Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azaleko irudia: Berrigara.

Tirada: 5.300 ale.

Copyright: BERRIGARA.

Lege gordailua: SS 50/91.

ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza



Bergarako
Udala



Gipuzkoako
Foru
Aldundia



Eusko
Jauriaritzako
Kultura saila

gutunak

Gutunak Berrigarara helarazteko: Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara. Faxez: 943 76 29 77. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.

MARIAREN LAGUNDIAREN BIGARREN MENDEURRENA

Bergara, 2000ko otsailaren 15ean

Orain dela urtebete ekin genien Bergarako Mariaren Lagundiko 200. urteurrena ospatzeko ekitaldiei, eta ekitaldiok burutu ondoren, Bergarako herriari eskerrak eman nahi dizkiogu ekin-tzotan izandako partehartze eta harreragatik. Egitaraua bete ahal izateko Udaletik eta herriko lantegietatik jasotako laguntza ere bereziki eskertu nahi dugu.

Guztion laguntzaz, ondo egindako lanaren satisfakzioa geratu zaigu, eta hemendik 100 urtera ere, ondorengoek guk ospakizuntan jarritako alaitasun berberaz ospatu dezatela desio dugu.

Eskerrak, ba, guztioi.

Bigarren Mendurreneko Batzordea

SANTA AGEDA BEZPERAN KANTUAN

BERRIGARAKO azken alearen Santa Ageda bezperari buruzko informazioan (15. orrialdea), egun horretan atera ziren Aranzadi ikastolako lau taldeetako baten argazkia ikusi ahal izan genuen.

Azpiko testua irakurtzean, ostera, argazkia iluntzean irten zen lau talde horietako batena izanik, ez zen Aranzadi Ikastolako inongo aipamenik egiten. Hau argitzeko asmotan idazten dizuegu eta aurrerantzean kontuan izango duzuelakon, agur t'ardi.

Aranzadi Ikastolako irakasle talde bat


GIDA 2000

Gogorazi nahi dizuegu etxean gidarik jaso ez duzenoi, nahi baduzue BERRIGARAKO erredakzioan, Kultur Etxean, daukazuela jasotzeko moduan. Horretaz gain, datorren urteko gidarako norbaitek zeozer zuzendu nahi badu, deitu dezala BERRIGARATA: 943 76 03 97.




tira biraka alex ugalde

Noizbehinka, mafia eta itsaso nahastua batera izaten dira, eta orduan...



atrebentzia ezpada

Zer gertatzen jako Realari? Zulotik urten eta maillari eutsiko dotsala uste dozu?



Francisco J. Moreno

Athletic zalia naiz eta ez dot uste Real maillaz jaitziko danik, ez neuke nahiko, gaiñera. Udan fitxaketa onak egin balittu...



Rosa Mari Leiaristi

Helduko dotsala uste dot. Jokalarixak nerbioso ikusten ditudut, baiña, azkenian zulotik aterako die, seguru.




Gabriel Medina

Larri ibilliko die, baiña Real ezin da bigarrenera jaitzi. Clemente ona da, baiña talde danak ezin dabe irabazi. Ligia zoro dabil.



Begoña Ugarte

Hala segitzen badau, behera doa. Jokalarixak ahalegin gehixago egin bihar dabe zulotik urteteko, majo kobratzen dabe eta.



Francisco J. Bakaikoa

Azkenian espabilatuko die eta zulotik aterako die. Entrenatzailliak lan zailla dauka, baiña suerte apur batekin libratuko die.



Petra Alvarez

Real zalia naiz eta poztuko nintzake maillari eutsiko balotsa. Pena emoten dost zuluhan ikustiak. Gaiñera, Clemente gustatzen jat.

bai, esan!



Gertaerak salatu edo txalotzeko: 943 76 03 97.
Identifikazioa beharrezkoa.

BOLUN APARKATZEKO LEKU GUTXI

Roberto Etxezarreta erredakzioan bisitari izan dugu aste honetan, bere auzoan dituzten arazo batzuei buruzko kexa azaltzeko. Roberto Bolu auzoan bizi da, Aranerreka kalean hain zuzen ere, eta aparkatzeko dituzten arazoak direla eta, protesta egiteaz neka-neka eginda ei dago. Peruldeko zubitik Boluko semaforora arteko zatian ia aparkatzeko tokirik ez dagoenez, jendeak autoa ahal duen tokian lagatzen duela dio, batzuetan espaloi gainean. Udalak aparkaleku berriak egin edo auto gehiagorendako tokia egokitu beharrean (autoak zeharka aparkatuta esate baterako), arazoa udaltzainen isunekin konpondu nahi duela salatzen du Robertok. Bere ustez, hori ez da bidea.

EDEL TAPIZDENDA

Etxerako artikuluetan aukerarik haundiena eskaintzen dizugu

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltxak, edredoak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA

GURIDI altzariak

Era guztietako altzariak

Artekalea 8 Tf. 943 76 31 02

PILI GISASOLA

Santeri

Osasun eta Dietetikan espezializatutako zentrua

Zurradero 2 behean.
☎ 943 76 58 83

Arantza Erlojutegia

Barrenkalea 4
943 76 10 04

Gallastegi


Jostundegia

Mahoizko lanerako jantziak

San Pedro ☎ 943 76 10 85

POL-POL Taberna

☎ 943 76 07 78



adituen esanetan

Neguko hegaztiak

Neguan gaude eta Naurten, behar bada, hotz handiagoa egiten du. Udaberria heldu bitartean, basoko animaliek aurrera egin behar izaten dute. Urte sasoi honetan ez da arraroa gertatzen gure herri barrura txoriak hurbiltzea. Horrelako egoera bat ia ezinezkoa litzateke urteko beste edozein sasoiaren, baina neguan egiterako kontua izaten da eta horrek badu bere azalpena. Zozoak, burubeltz handiak, amilotx urdinak, txantxangorriak, karnabak, txontak, gailupak eta beste hainbat hegazti herrietara hurbiltzen dira bi arrazoiengatik nagusiki: berotasuna eta elikadura. Guk herri barruan ere hotza somatu arren, basoetan oraindik hotz handiagoa egin ohi du eta, bestalde, urte sasoi honetan oso nekeza da herrietan aurki daitezkeen elikagaien hondarrak topatzea. Horretaz gain, hegazti txikien kasuan, herri barruaren babesean, beraien harrapari naturaletatik urrun egotea lortzen dute.



JUANJO NOGUEIRAS

Naturzalea

"Zozoak, burubeltz handiak, amilotx urdinak, karnabak, txantxangorriak, txontak... hainbat hegazti herrietara hurbiltzen dira neguan"


Izan ere, eguneko zein gaueko hegazti harrapariak eta ugaztun karniboroek (azeriek, erbinudeek, lepazuriek...) uko egingo diote herri barruan sartzeari.

Gure "lagunek" negu partean zein gaizki pasatzen duten ideia bat izan dezazuen, adibide bat: txantxangorriak, bi errunalditan, bikote bakoitzeko 8-10 txito ekartzen badituzte, urtaro honetan batz bestea horien %60 galduko dute neguarekin zerikusi zuzena duten arrazoiengatik. Burubeltz handien eta amilotx urdinen kasua oraindik ere latzagoa da. Horiak ere, lehen aipatutako besteak bezala, in-tsektujaleak dira eta urtean izaten duten errunaldi bakarrean jaiotako 12 txitoetako 8-10 inguru goseak edo hotzak hil litezke, harraparien atzaparretan ez denean. Argi dago, beraz, txori asko hiltzen dela neguan nahikoa janik ez dutelako. Hori dela eta, ondo legoke toki jakin batzuetan noizbehinka txoriendako jan pixka bat lagatzea.<



Zozoak herri barruan ikus daitezke neguan. JUANJO NOGUEIRAS

bergarako errota



SALTO ERROTA

Salto erreka"ren izenean 1949an hartu zuen alta. Irin-errotak zen. Hurrengo urtean erroldatik desagertua zegoen. Inguruko 20ren bat baserrirena zen.

Angiozar erreka eskumaldea kokatua; bertako urez baliatzen zen, eta bi pare harri zerabiltzan garia, artoa, garagarra eta ganadua-rendako pentsuak ehotzeko.

1981erako dagoeneko desaginda zegoen.

Kokapena: Angiozarko elizatik 1.500 bat metrora, errekan gora.



BOLU

Bolu izeneko baserri baten hondarrak baino ez daude. Auzoko esanetan (1981 / 01 / 05), gurasoei entzun izan zieten noizbait errota izana zela. Angiozarko errekatxo eraikinaren azpitik doa.

Bere kokapena eta ingurua kontuan izanda, pentsa liteke noizbait errota izana dala, izenak berak dioen bezala (bolua=errota).

Kokapena: Angiozarko elizatik kilometro batera, errekan gora.

Antxon Agirre Sorondo

1941eko kintada

1941ean jaiotako bergararrek afaria izan zuten joan zen urtarrilaren 29an. Azkenengo 9 urteotan kintadarik ospatu gabe egon ostean, primerako giroan ibili ziren denak. Dantzan egiteko aukera ere izan zuten, **Manu Iztueta** soinu-jolearen musika alaiari esker.



San Lorentzotarren afaria




JUAN ANTONIO UNZURRUNZAGA

San Lorentzoko lagun-talde honek afaria egin zuen joan zen urtarrilaren 15ean, iazko esperientzia arrakastatsua errepikatuz.

San Lorentzoko ermitan meza entzun eta honako argazki hau atera ondoren, Osintxuko jatetxe batera joan ziren afaltzera, eta giro ederrean ibili ziren. Hala ere, ez zituzten abaztu kartzelan dauden **Jabier Lazkano** eta **Luis Etxeberria** lagunak.

Bergara, oporretarako herria



“España Desconocida”, turismoaren inguruko aldizkari bat da; oporraldiak igarotzeko Estatuko hainbat toki gomendatzen ditu, eta hara non, oraingo honetan Bergara izan den horietako bat. Bertan, Bergarako historia eta monumentuei buruzko azalpen labur bat ematen da, eta herria definitzeko, **kultoa eta tradizioa** dela diote. Horren ondoren, baliteke aurtengo oporretan sekula baino turista gehiago ikustea...




B e r g a r a k o OSASUN GIDA

■ **ALBAITARIAK:** **ARATZ KLINIKA (LAZPIUR Roman).** Zurradero 6, behe. 943 76 70 67, mobila: 607 48 71 19 • **ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak).** 943 76 43 29, mobila: 609 54 16 13 • **ETXEBERRIA Julio (Deba Garaiko albitari ofiziala).** 943 76 43 29, mobila: 609 54 16 13 • **IRASTORZA BENGEOA Sabin (Granjako animaliak).** Iribar baserria, ANTZUOLA. 943 76 63 46 • **NOGUEIRA Humberto (BALDANA klinika).** Koldo Eleizalde 28. 943 76 27 97, mobila: 608 87 68 47 ■ **ANALISI KLINIKOAK:** **LABORRA Isabel.** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06 ■ **BARNE MEDIKUNTZA:** **IRIGOYEN Victor.** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06 ■ **DENTISTAK:** **ASTIAZARAN SOLOZABAL.** Iparragirre 1, behe. 943 76 27 95 • **BERGARA HAGIN KLINIKA** Bidekurutzeta 6, 2. 943 76 05 77 • **GOROSABEL J. Alberto.** Fraiskozuri 5A, 1-D. 943 76 56 88 • **GIPUZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E. M. S. Arrieta 3, 2-B.** 943 76 38 54 • **IRIARTE Idoia.** Artekale 1, 1-C. 943 76 01 65 • **TRIPALDI Enrike.** Fraiskozuri 1, 2. 943 76 70 76 ■ **ERREHABILITAZIO FISIKOA:** **LOPEZ DE MUNAIN Francisco J.** Fraiskozuri 8, 1A. 943 76 71 74 ■ **FISIOTERAPEUTAK:** **ARZAK Miren (Reeducacion Postural Global).** Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71 • **BASTERRETxea, Maria.** Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71 ■ **GINEKOLOGOA:** **SERRANO DOKTOREA.** Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39 ■ **MASAILARIAK:** **AGIRREZABAL Jose Jabier.** Boni Laskurain 1, 2-A. 943 76 15 74 • **AZPEITIA Irune.** Agorrosingo igerilekuak. 943 76 73 43 • **CASANELLAS Jabier.** Boni Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 78 • **ETXEBERRIA Ana.** Errekalde 6, behe. ANTZUOLA. 943 76 60 13 ■ **MEDIKUNTZA ESTETIKOA:** **BENITO Isabel.** Bidekurutzeta 46, behe. 943 76 52 62 ■ **MEDIKUNTZA OROKORRA:** **OXIRONDO KONTSULTATEGIA.** Boni Laskurain 2, behe. 943 76 20 50 ■ **PODOLOGOAK:**

ALTUBE Edurne. Simon Arrieta 2. 943 76 07 84 • **AZPIAZU Arantzazu.** Herri Lagunak z/g. 943 76 41 32 ■ **PSIKIATRA:** **GALLASTEGI Pablo.** San Martin Plaza 2, 1-ekerra. 943 76 26 64 ■ **PSIKOLOGOAK:** **PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA (Logopedia-foniatria, psikologia, psikomotritzitatea).** 943 76 14 80 • **URKAREGI Pakita (Psikologo klinikoa).** 943 76 53 13 • **ZUBILLAGA ZABALA Marisa (Psikologo klinikoa).** 943 76 30 76

Osasunez bizi izateko!



Erronka berriei eutsi

Lehengo Union Cerrajera mendeurrenetik gertu

Labegarietako Industrialdeako lanak erritmo onean doaz aurrera. Lehengo Union Cerrajerako lurretan kokatuko da herriko industria poligono nagusia izango dena. Garai batean, labegariaik herriko industria eta ekonomiaren motore izan ziren moduan, milurteko berriaren hasierako urteetan industria ekimen berriei esker, lanpostu gehiago sortzea da asmoa.

Labegarietako ezkerreko aldean apurka-apurka urbanizatzen doan neurrian, Bergarako Udala eta Aceralia enpresa negoziatuetan ari dira eskuma aldeko lur sailak eskuratu eta bertan zerbitzuetara bideratuko liritekeen enpresak kokatzeko.

Garai berriak datoz, eta erronka berriei erantzuteko momentuan gaudela uste du Aceralia enpresako, lehengo Altos Hornos de Bergarako, ELA sindikatuak. "Langileen ordezkariak, jabeak, industrialdearen kudeaketarako elkarteak, Spri-Lur-ek eta Altos Hornos de Bergara S.A.ko zuzendaritzak elka-

ren arteko akordio bat lortu beharra dute" diosku ELAko ordezkari Iñaki Arregi "Bixkai"k.

ELA sindikatuak konbentzituratu daude Labegarietako ingururako plan integral bat bultzatu beharra dagoela. Horretarako, erakunde publiko zein pribatuak apustu gogorra egin behar luketela uste dute.

PLAN INTEGRALA

ELAk gaiari buruzko txosten bat prestatu du eta BERRIGARARA helarazi digu. Txostenean, Union Cerrajeraren sorreratik gaur egun arte enpresak izan duen ibilbidea jasotzen da, eta erronka

berriei aurre egiteko irtenbideak proposatzen dira. Iñaki Arregiren ustez, "birrantsolaketan planifikatu eta lehiakor batek, eskualdeko lan prekarietatea murrizteko behar diren lanpostuen sorrera ekarriko luke, eta, bestalde, Beasain-Durango autobidearen eta Maltzaga-Gasteiz autopistaren eraikuntzarekin, kokapen ezin hobea izango gunduko".


2006. urtean 100 urte betetzen dira Union Cerrajera sortu zela. Mende honetan jabeago eta izen aldaketan ugari ezagutu dituzte labe garaiak, eta ehundaka izan dira bertan ibilitako langileak. Mendeurren gero eta gertuago da-



goen honetan, Union Cerrajeraren benetako historia zein den azaldu nahi diete herritarrei eta enpresako langile guztiei "gure esker ona erakutsi nahi diegu, euron lan eta izerdiarekin, amaitu berri den mende honetan zehar egin dutenagatik" diosku "Bixkai"k.

Langileen ordezkarien ustetan, hazkunde ekonomikoko une hauetan inoiz baino bideragarriagoa da Labegaraietarako proposatzen duten plana, eta bertan inplikatu beharko liratekeen gainerako alderdiei horretarako ekimena eta borondate sendoa eskatu nahi

diete. "Eskuartean daukagun bezalako plan bat abian jartzea eta horrek leharkeen ondasuna sortzea da mendeurrena ospatzeko Bergarari eta inguruari egin diezaiokegun oparirik ederrena" dio ELAko ordezkariak. Iñaki Arregiren ustez, ondo prestatuta egongo den industrialde bat aurrera eraman ahal izateko ezinbestekoa da "honelako plan batek dituen kostuei aurre egiteko behar besteko diru fondoa edukitzea eta alde guztien adostasuna lortzeko negoziatzen jarraitzeko borondate sendoa edukitzea".



ELA sindikatuaren ustez Labegaraietan plan integral bat bultzatu behar da, erakunde publiko zein pribatuek apustu gogorra eginez

UNION CERRAJERAREN SORRERA ETA GARAPENA

Union Cerrajera 1906. urtean sortu zen, eta ondorengo urteetan industri garapen nabarmena izan zuen. Bere urterik onenetan 1.600 lanpostu izan zituen, eta Bergara eta inguruko gizarte egitura indartzeko oso faktore garrantzitsua izan zen.

1970eko hamarkadan, industri plan orokor baten barruan, Siderurgia Egitasmo Hitzartua garatu zen. Egitasmo horrek bi modutako eragina izan zuen: "alde batetik, lantegia indarberritzea ekarri zuen, eta bestetik, garai gatazka-tsu baten hasiera".

Indarberritzea, produkzio sistemei dagokienez, aldaketa teknologiko handiak ekarri zituelako. Behar-beharrezko aldaketak, gainera, hala nola, labe elektrikoak eta galdaketa jarraikorra, eta tren jarraikor itzulgarria jarri zituzten.

Baina, era berean, gatazka garaiek ere izan ziren enpresarentzat, "batez ere estatu eta probintzi mailako administrazio erakundeetatik jasaten zuen finantza-presioagatik". Horrek eragina, ordura arte sekula ezagutu gabeko porrot teknikoa jasan zuen Union Cerrajerak.

KRISI GARAIA ETA ENPRESAREN AMAIERA

1980ko hamarkadan, enpresa proiektuaren egoera kaskarra kontuan izanda, akziodunek, negozioaren kudeaketaren erantzukizun guztia Hitec gestio-erakundearen eskuetan lagatzea erabaki zuten.

1985. urtean zehar merkatu krisia areagotu egin zen, eta horregatik eta baita enpresaren finantza egoera kaskarragatik ere, irtenbide bakar bat ikusi zen: Unesid eta Siderinsa patronalen



Laister 100 urte betetzera doan enpresa, esku askotatik pasatu da eta hainbat izen ezagutu ditu: Union Cerrajera, Altos Hornos de Bergara eta, iazko udatik, Aceralia. Egun hauetan ibili dira enpresan errotulo berria jartzen.

Altzairu Arrunteko Enpresa taldeak lideratutako birmoldaketa-planarekin bat egitea, Industri Ministeritzako Siderurgia-gerentziaren laguntza eta babesasasoz. Plan honetan, funtsean, produzitzeko gaitasuna murrizteko eta enpresak ixteko diru-fondo bat eratzea aurreikusituen.

1988. urtean Siderurgia-gerentziaren, enpresetako patronalen eta estatuko sindikatu nagusien arteko estatu mailako akordioa gauzatu zen.

ALTOS HORNOS DE BERGARA ETA ARISTRAIN

Altzairu-arrunterako marko orokorra finkatu ondoren, Union Cerrajerari, siderurgia alorrari dagokionez, zein irtenbide eman zekioken aztertu zen, ondorengo baldintzok ezarrita: alde batetik, Altos Hornos de Bergararen eta Arrasateko Union Cerrajeraren ondasunak banatzea. Bestetik, Altos Hornos de Bergararen akziodunak aldatzea eta akzioen %100, epeka, Jose Mari Aristrainen eskuetara pasatzea. Azkenik,

plan hau aurrera eroan ahal izateko, Union Cerrajeraren barruan gizarte eta lan arloko akordio bat adostea eta akordio horrek Union Cerrajeraren jabetzapeko Zornotzako Laminor enpresa ere hartzea.

1989ko maiatzaren 2an jarri ziren indarrean ELAk hitzartu eta UGTk, CCOOK eta Laminor enpresako langile independenteeek ere onartu zuten lan hitzarmena.

UNION CERRAJERAREKIN ADOSTUTAKO AKORDIOA

1980ko hamarkada amaitzera zihoala, Cerrajerarekin adostutako akordioaren ezaugarri nagusiak honako hauek dira: 55 urtetik gorakoek aurrejubilazio birtartez enpresa uztea, soldata gordinaren %98 eta garbiaren %92 bermatuta. Era berean, kotizazioak eguneratu egingo ziren 65 urte bete arte, eta adin horrekin hartuko zen behin betiko erretiroa une bakoitzean indarrean zegoen legeak arautzen zituen kotizazioen oinarriaren %100 jasoz (neurri honen 257 langileri eragin zien). Bestalde, soldaten igoera %4koa izango zen. Horretaz gain, Union Cerrajera Arrasateetik Altos Hornos de Bergarara etorri nahi zutenei lanpostua bermatuko zitzaizkien (39 langile), eta baita, baldintza berdinekin, Zornotzako Laminor enpresatik etorri nahi zutenei ere (29 langile).

Union Cerrajera 1906.ean sortu zen, eta ondorengo urteetan industri garapen nabarmena izan zuen. Garairik onenean 1.600 langile izan zituen

Azkenik, jatorrizko enpresetan zuten baino maila ekonomiko eta sozial altuagoa bermatuko zitzaizkien, bakoitzean antzinasuna gordeko zitzaizkien eta langileei lantokirako joan-etorriak errazteko konpromisoa hartu zen, hori zela eta, langileek beraien poltsikotik dirurik jarri beharrik izan barik.

LANGILEENTZAKO HOBEKUNTZAK


Akordio honek lan eta gizarte arloko hobekuntzak ekarri zituen. Hauek, 1989. urtetik 1999ra arteko konbenioan aplikatu ziren. Besteak beste, honako onura hauek ekarri zituzkien langileei: pasiboen talde osoarentzako soldata-osagarriak (bere momentuan 567 langileri eragiten zien neurri horrek); %66,6ko soldata igoera metatua; lanaldiaren murrizketak (erreleboetakoentzat, 87 ordu gutxiago eta lanaldi etenekoentzat, 71 ordu gutxiago); inbertsio eta hobekuntzetan 5.280 milioi pezeta inbertitu ziren; famili laguntzarako bonoetan 776.500 PTA banatu ziren langileko; prima fijoko sistema ezarri zen 1989ko uztailaren 11tik eta Lanerako Ezintasun Iragakorren %100erainoko osagarriak hogeigarren egunetik hasita (1993ko urtarrilean jarri zen indarrean).

Aipatzekoa da 1993tik Altos Hornos de Bergara enpresak heliportu bat duela, lantegian edo inguruan gerta daitezkeen larrialdietan erabiltzeko.<

PINTXO eta BOKADILOAK
SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g ☎ 943 76 07 92



PINTURAS BERGARA S.L.

• INDUSTRIARAKO PINTURAK
• GARBIKETAK

• APAINKETARAKO PINTURAK
• ERROTULOAK

Aranerreka 32 behea. BERGARA. Telefonoa: 943 76 10 65. Faxa: 943 76 11 40.

Bergarak Sestao River taldearen bisita izango du zapatuan

Bizkaitarrak seigarren tokian daude sailkapenean

Bergarako futbol taldeak Sestao River taldearen aurka jokatuko du bihar, zapatua, 16:15etik aurrera Agorrosinen. Sestao River liga amaieran igoera fasea jokatzeko faborito nagusietako bat dugu.

Jesus Mari Biam Bergarako taldearen entrenatzailearen arabera, mahoneroek ezinbestekoa dute bihar garaipena lortzea. Hiru partidu jarraian irabazi ondoren, Bergarak aukera paregabea galdu zuen domekan Azpeitian, Lagun Onak taldearen aurka, hiru puntuak eskuratzeko. Lehen zatian bergararrak nagusi izan arren, ez zituzten gol aukerak asmatu. Bigarren zatian, 65. minutuan Bergarak aukerarik onena izan zuen, epaileak bisitarien aldeko penalti eztabaidagarri bat adierazi ondoren. Etor Laskurainek ez zuen jaurtiketa asmatu eta



Argazkian, Basaurin Baskoniaren aurka zelairatutako hamaikako bergarra.

azpeitiarren atezainak baloia gelditu zuen. Handik gutxira, azpeitiarrek garai-penaren gola lortu zuten. Ondorioz, bergararrak sailkapeneko 13. tokian daude, 29 punturekin. Hamargarren eta 17. tokietan dauden San Pedro eta Lagun Onak taldeak bergararrangandik hiru puntura daude. Sailkapena, beraz, estu dago.

GIRO BIKAINA

Biharko partiduak ohikoa baino jende gehiago bilduko du Agorrosinen, izan ere Sestaotik bi autobus etorriko direla espero da. Bizkaitarren jarraitzaileak kategoriariako fidelenetakoak ditugu eta ziur bihar giro ezin hobea izango dela Agorrosinen. Bergarako taldeari dagokionez, Biain entrenatzaile

leak Luis Mari Blancoren baja izango du, atzelaria txartelengatik zigortuta baitago. Bestela, ez da aparteko nobedaderik etxekoen artean eta ohizko hamaikakoa zelairatuko du zumarragarrik. Biainen hitzetan, "talde beteranoa dauka Sestaok eta zaila izango den arren, garaipena lortu beharra daukagu".

Eskolarteko Gipuzkoako Karate Txapelketan



Markel Larrañaga bergararrak lehen postua eskuratu zuen zapatuan Eibarko Unibertsitate Laboralean jokatutako Gipuzkoako Eskolarteko Karate Txapelketan, infantil mailan. Markel Bergarako Shotokan taldean ari da eta kata modalitatean lortu zuen lehen postua. Horren ondorioz, maiatza bukaeran jokatuko den Euskadiko Txapelketarako txartela lortu zuen Markelek. Oier Tola eta Unai Zabarte

ere Euskadiko Txapelketarako sailkatu ziren, Eibarren laugarren eta bosgarren postuetan geratu ondoren. Oier Tolak dezima bakar bategatik ez zuen hirugarren postua eskuratu. Josean Iñarra entrenatzailea oso pozik azaldu da bere ikasleek lortutako emaitzekin. Argazkian, ezkerretik eskumara, Unai Zabarte, Oier Tola eta Markel Larrañaga aurrean, lortutako trofeo batzuk dituztela.

Olaizolak eta Zezeagak zapatuan finalerdia jokatu dute Gasteizen

Asier Olaizolak eta **Jose Mari Zezeagak** 22 eta 7ko emaitzarekin menderatu zuten Etxanizek eta Elkorok osatutako bikotea zapatuan Udal Pilotalekuan eta finalerdietarako txartela lortu zuten. Frontoia toperaino bete zen eta giro ezinhoba izan genuen Udal Pilotalekuan, aspaldiko partez. Zezeagak eta Olaizolak partidu borobila jokatu zuten eta merezimendu osoz nagusitu ziren. Zaletuen arabera, uberarrak aspaldian joaktu duen partidurik onenetakoa jokatu zuen zapatuan bere jarraitzaileen aurrean. Zapatuan finalerdietako joaneko partidua jokatu dute Olaizolak eta Zezeagak, Unanue eta Errastiren aurka Gasteizen. Errastik lesionaturik jarraitzen duenez, bere ordez Rai edo Imaz izango da.

Bestalde, Iker Muruamendiarazaren debutak ere ikusmin handia sortu zuen.



Iker Muruamendiarazek garaipen batekin debutatu zuen zapatuan.

Ikerrek ez zuen bere maila onena erakusterik izan eta nerbioak bere kontra izan zituen. Hala ere, Arroyorekin batera, garaipena eskuratu zuen 22 eta 16ko emaitzarekin Berraondori eta Almandoz nagusituz. Ikerrek bere jarraitzaileen laguntza izan zuen eta bere aldeko hainbat pankarta ikusi ahal izan ziren frontoiko harmailetan.

DEBA ARROKO TXAPELKETA

Deba Arroko Txapelketaren barruan, Bergarak galdu egin zituen Arrasateren aurka kadete (19-22) eta senior (17-22) mailako partiduak martitzenean Udal Pilotalekuan. Garaipen bakarra Julen Aranburuk eta Joseba Herranek lortu zuten (22-15). Hurrengo astean Aretxabaletan jokatu dute.

Mendi irteera hilaren 27an

Alpino Gorlak eta Pol Pol Mendizale Taldeak otsailaren 27an Laredo eta Oriñonera joateko irteera antolatu dute. Irteera goizeko 7etan egingo da Frontoitik. Argibideak: 943 76 48 51.

Gipuzkoako igeri txapelketan

Eneritz Muguruza 3. sailkatu zen 100 m.ko bizkarrera eta 200 m. estiloko probetan, Azpeitian, Gipuzkoako Txapelketan. Antxon Maiztegik eta Jon Sasigainek ere hartu zuten parte.

Igerilekuak itxita zapatu goizean

Bihar, zapatua, Udal Igerilekuetan goizez jokatu den Igeri Txapelketa dela eta, bainu eremua itxita izango da erabiltzaileentzat goizeko 9:30etatik 13:30etara bitartean.

KARTELDEGIA

FUTBOLA

Bergara-Sestao

Hirugarren maila
Zapatua. 16:15. Agorrosin

Bergara-Arrasate

Ohorezko kadeteak
Zapatua. 18:15. Ipintza

Bergara-Aitzgorri

Lehen mailako kadeteak
Domeka. 11:00. Ipintza

ESKUBALDIA

Bergara-Elgoibar

Kadete mutilak
Zapatua. 19:00. Kiroldegia

Bergara-Legazpia

Jubenil mutilak
Domeka. 9:30. Kiroldegia

Bergara-Tolosa

Senior mutilak
Domeka. 11:00. Kiroldegia

SASKIBALDIA

Bergara-Askatuak

Kadete mutilak
Domeka. 10:30. M. Lagundia

Bergara-Iraurgi

Jubenil mutilak
Domeka. 12:15. M. Lagundia

ARETO FUTBOLA

Bergara-Bingo Londres

Senior mutilak
Eguakitza. 22:30. Kiroldegia

Bergara-Idiazabal

Neskak
Domeka. 12:30. Kiroldegia

PILOTA

PROFESIONALAK

Berasaluze VII.a-Irigoien/

Muruamendiaraz-Sukia

Etxaniz-Otxandorena/

Gonzalez-Elkoro

Tolosa III.a-Milikua/

Esnal-Mendia

(azken hau, 2. mailako txapelketakoa)

Bihar, zapatua, 17:00etan

Udal Pilotalekuan

UDABERRIKO TXAPELKETA

Bergara-Aretxabaleta (kadeteak)

Bergara-Loiolatarra (seniorrak)

Gaur, eguakitza, 19:30etan

Udal Pilotalekuan



Aldibi autoak, S.A.
Zigarrola 1 • ARRASATE
Tf. 943 71 20 02
Faxa: 943 79 65 65



Amillaga, gasolindegia ondoan. Tf.: 943 76 57 34

**ZABALETA
ERROTULOAK**

Mota guztietako errotuloak
Fatxadak, eskapareak...

AGOITZ

Tapizdenda

Leizariako San Lorentzo 25
BERGARA
Tf.: 939 84 57 47



Labegaraietako futbito txapelketa

PARTIDUAK

ZAPATUAN KANPOAN

- 16:00: Amilotx-Amuskibar
- 17:00: Agiñazpi-Soropotroak
- 18:00: Artusamak-Xurrupek
- 19:00: Mo(ko)lotov-La Juve

- Agiñazpi
- Artusamak
- Agiñazpi
- Agiñazpi

DOMEKAN BARRUAN

- 16:00: A Ze Flaxa Etxagi-Shaktale
- 17:00: Uve Bikoitza-Agiñazpi
- 18:00: Fac-Ufala
- 19:00: Torrekua-Vacalouras
- 20:00: Xurrupek-Guadalest

- Uve Bikoitza
- Fac
- Torrekua
- Xurrupek
- Vacalouras

DOMEKAN KANPOAN

- 09:00: Txipiron-Artusamak
- 10:00: Etengabe-Azpeitxi Jatetxea
- 11:00: Ari Ari-Irubide Jatetxea
- 12:00: Mongatxurak-Agirrebeña
- 16:00: Pagomendi-Pinturas Bergara
- 17:00: Moskis-Sirimiri Eri
- 18:00: Urruxurtu-Bayer

- Mongatxurak
- Mongatxurak
- Mongatxurak
- Irubide
- Sirimiri Eri
- Urruxurtu
- Moskis

EMAITZAK

A MULTZOA

Azpeitxi Jatetxea-Moskis	6-1
Sirimiri Eri-Irubide Jatetxea	0-3
Pagomendi-Ari Ari	2-1
La Juve-Etengabe	2-1
Pinturas Bergara-Mo(ko)lotov	1-5

B MULTZOA

Amilotx-Mongatxurak	2-12
Agirrebeña Jatetxea-Bildurbarek Opel Lam	6-11
Bayer-Tom Cat Argandolas	7-0
Urruxurtu-Patatus	3-1
Patxaran Team-Amuskibar	3-6

C MULTZOA

Shaktale-Torrekua	5-1
Soropotroak-Ortzi	17-3
Vacalouras-Buya	0-3
A Ze Flaxa Etxagi-Ion Autoak	11-1

D MULTZOA

Guadalest-Txipiron	9-4
Komando Piperrak-Bar Canalejas	4-6
Ufala-Errotagain	0-16
Fac-Aterpe	7-2

GORA ETA BEHERA



Liderrak sendo

Multzo bakoitzeko liderrek sendo jarraitzen dute eta azken jardunaldian laurak hiru puntu eskuratzea lortu zuten. Pagomendi sufritu zuen gehien, Ari Ari taldeari 2 eta 1eko emaitzarekin irabazi zion eta.



Ufala eta Ortzi

Ufalak D multzoko azken tokian jarraitzen du, Errotagain liderraren aurka 16 eta 0 galdu ondoren. Ortzi ere ustekabean 17 eta 3 galdu zuen Soropotroak taldearen kontra.

ARGI! Antolatzaileen zigorrak

Sirimiri Eri eta Vacalouras taldeei hiru puntu kendu dizkie Antolaketa Batzordeak azken jardunaldiko partiduetara ez aurkezteagatik. David Perez, Patxi Serna eta Bittor Jimenez jokalariek partidu bateko zigorra bete beharko dute.

SAILKAPENAK

A multzoa

	P	J
1. Pagomendi	42	15
2. Azpeitxi Jatetxea	33	15
3. Irubide Jatetxea	28	15
4. Sirimiri Eri	23	15
5. Pinturas Bergara	22	15
6. Etengabe	15	15
7. Ari Ari	13	15
8. Moskis	12	15
9. Mo(ko)lotov	10	15
10. La Juve	9	15

B multzoa

	P	J
1. Bayer	36	15
2. Mongatxurak	31	15
3. Amuskibar	28	14
4. Urruxurtu	26	15
5. Bildurbarek Opel Lam	22	15
6. Patxaran Team	21	15
7. Amilotx	16	14
8. Tom Cat Argandolas	12	15
9. Agirrebeña Jatetxea	11	15
10. Patatus	1	15

C multzoa

	P	J
1. A Ze Flaxa Etxagi	40	15
2. Ortzi	33	15
3. Shaktale	28	15
4. Uve Bikoitza	22	14
5. Ion Autoak	19	15
6. Buya	16	15
7. Agiñazpi	13	13
8. Vacalouras	11	15
9. Soropotroak	10	14
10. Torrekua	7	15

D multzoa


	P	J
1. Errotagain	41	15
2. Fac	32	15
3. Bar Canalejas	31	15
4. Guadalest	31	15
5. Artusamak	25	13
6. Xurrupek	19	14
7. Txipiron	13	14
8. Komando Piperrak	7	15
9. Aterpe	2	15
10. Ufala	1	15

Informazio hau babesle hauei esker:

OGIZUN

koop. elk.
okindegia

San Pedro 21 Zubillaga z/g
BERGARA OÑATI
943 76 20 49 943 78 24 13



BOKATEGIA

Simon Arrieta plaza
2A behea ezker.
Tf. 943 76 71 19

mahoneroak



BITTOR AGIRREBARRENA
Nesken entrenatzailea

Bergarak zerbait gehiago merezi izan zuen domekan Azpeitian. Lehen zatian mahoneroek oso ondo jokatu zuten, baina Lagun Onak taldeko atezainaren lana ere azpimarratu beharra dago, oso ondo egon baitzen. Bigarren zatian, berriz, Bergara ez zen hain erraz iritsi azpeitiarren area ingurura, eta beraiek zertxobait aurrera egin zuten. Dena den, gol aukerarik onena Bergarak izan zuen epaileak adierazitako penalti bati esker. Nire ustez, arbitroak ez zuen asmatu, penaltirik ez zelako izan. Baina Etor Laskurainek gaizki jaurti zuen penaltia eta handik gutxira, falta jaurtiketa bati esker, Lagun Onakek garaipenaren gola egin zuen. Beharbada, Urko atezainak zerbait gehiago egin zezakeen jokaldi horretan. Azkenean, esku hutsik bueltatu ziren bergararrak eta hiru puntuak lortzeko aukera ere galdu zuten. Eskerrak sailkapenean atzetik dauden taldeek ere ez zutela emaitza onik lortu azken jardunaldian. Horrekin konformatu behar...

Otsein Saria

Sailkapen orokorra:

Josetxo Lizarralde . 9 puntu
Oxel Apraiz. 8 puntu
Etor Laskurain 7 puntu

Etxeko partiduak bakarrik hartzen dira kontuan.

kronika kadete nesken eskubaloi taldea

Sailkapeneko azken tokian

BERGARA 6

PULPO 26

Bergara: Naikari Medina, Elaia Iñurrategi (5 gol), Nagore Aizpurua, Nuria Fernandez (gol bat), Ana Garcia, Izaskun Arrese, Maialen Manterola -hasierako taldea), Nerea Campos, Ariane Nafarrete, Amaia Azurmendi, Ane Miren Irizar, Ariane Menor eta Maialen Legorburu.



Bergarako taldeak partidu bakarra irabazi du orain arte liga txapelketan.

Kadete mailako nesken taldeak sailkapeneko azken tokian jarraitzen du, zapa-tuan Zumaia-ko Pulpo taldearen aurka 6-26ko emaitzarekin galdu ostean. Berriz ere etxekoek punteria falta erakutsi zuten, eta erasoko jokaldietan ez ziren batere fin aritu. Lehen zatian oso

gaizki jokatu zuen Oihana Garmendiak zuzentzen duen taldeak, eta kostaldekoak 1-17ko emaitzarekin aurreratu ziren lehen orduerdian. Atsedendian, etxeko entrenatzaileak bere jokalariek motibatu behar izan zituen, eta gauzak zer-

txobait zuzendu ziren, 5-9ko emaitza izan baitzen bigarren zatiko partziala. Hala ere, Oihana nahiko haserre zegoen bere jokalariek egindako partidurekin, eta entrenamenduetan gauza asko hobetzeko dituztela dio.

Astean hiru aldiz entrenatzen dira baina denboraldi eskasa egiten ari dira Oihanaren neskak. Berak esan digunez, "defentsan erasoan baino hobeto gabil-tza. Erasoko jokaldietan ideia falta nabaria da, eta taktika hobetzea derrigorrezkoa zaigu. Emaitza baino, taldearen itxura eta jarrera inportanteagoak dira, nire ustez, eta alde horretatik lana egin beharra dugu. Bestalde, talde gehienetan gureak baino jokalaria indartsuagoak dituzte, eta horiek geratzea oso zaila egiten zaigu". Zapatuko partiduan bi aurpegi erakutsi zituen taldeak, eta lehen zatian dena gaizki atera bazitzairen ere, bigarren zatian joko hobea egin zuten. Nabarmenezkoa da Elaia Iñurrategik jokaturako partidua.

Esan bezala, mahoneroak sailkapeneko azken tokian ditugu, bi punturekin, eta garaipen bakarra lortu dute, azkenurreko tokian dagoen Leizaran taldearen aurka. Astebukaeran, Urnietako taldeari bisita egin behar dio Bergarak. Liga bukatutakoan, kopa txapelketari ekingo diote.

BALENTIN EGIDAZU / Futbol epaile kolaboratzailea

"Lehen mailan epaile onak daude"

Duela 15 bat urtetik gazteen futbol partiduetan epaile lanak betetzen ditu Ipintzan Balentin Egidazuk. Gaztetan, Athleticen jubeniletan jokatu zuen, besteak beste, Clemente eta Villarrekina batera. Orain, astero pare bat partidu arbitratzen, primeran pasatzen duela diosku.

G. Nondik datorkizu arbitratzeko zaletasuna?

E. Orain dela 15 bat urte ez zegoen epaile federaturik herrian eta infantilak entrenatzen ari ziren Julian Ugaldek eta Pedro Jausorok epaile lanak egingo nituen galdetu zidaten. Eta ordutik infantilak, kadeteak eta azkenaldian nesken partiduak

arbitratzen ditut. Ez nago federatuta, kolaboratzailea naiz.

G. Kategorien artean diferentziarik?

E. Jokalarien portaera entrenatzailearengandik hasten da. Entrenatzailea serioa bada horrek eragina izaten du bere jokalariek zintzo portatzeko orduan.

G. Txartelzalea zara?

E. Ez, nahiago izaten dut, txartela atera aurretik hitzez gauzak konpontzea. Baina batzuetan txartela derrigorrez atera behar.

G. Etxeko entrenatzaileak beraien kontra

pitatzen duzula kexu izan dira.

E. Ez dut uste horrela denik eta ahalik eta objetiboena izaten ahalegintzen naiz.

G. Arauren bat aldatzekotan?

E. Azken jokalariek edo atezainak penaltia egiteagatik txartel gorria ateratzea gehiegizkoa iruditzen zait. Penaltia eta txartel horia nahikoa liraterke.

G. Gustoko arbitro bat?

E. Lehen mailan epaile onak daudela uste dut; niri Iturralde Gonzalez gustatzen zait gehien.



1. ETXEBIZITZAK

SALDU

Etxea eta lursaila salgai Olan. 943 76 06 92.

Bidekurutzeta. 250 m²ko ganbara. 943 76 21 80.

Pisua salgai Zubietan. 943 76 12 61.

S. Lorentzo. 943 76 38 87.

EROSI

Bergaran etxea erosiko genuke. 943 21 99 02 (gauez).

Pisua erosiko nuke Zurraideron. 943 76 52 31.

Etxebizitza erosiko nuke Bergaran. 943 76 09 99.

Pisu txiki bat erosiko nuke (igogailuduna derrirorez). 943 76 12 61.

ERRENTAN EMATEKO

Bungalow bat Torreviejan, udan. Hondartzatik gertu. 943 78 14 72.

ETXE KONPARTITUAK

Pertsona behar da etxea konpartitzeko. 943 76 31 23.

Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, martitzen eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

1. ETXEBIZITZAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartituak
Bestelakoak

2. GARAJEAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

3. LOKALAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

4. LANA
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

6. IBILGAILUAK
Saldu
Erosi
Bestelakoak

7. ANIMALIAK
Saldu
Erosi
Bestelakoak

8. DENETARIK
Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatu
Galdu
Aurkitu
Bestelakoak

9. HARREMANAK
Agurrak
Kontaktatu
Deiak
Bestelakoak

4. LANA

ESKAITZAK

Administratibo edo idazkari lanak. Esperientzia. 943 76 35 95.

Etxe lanak, umeak zaindu edo dendari lanak. 636 76 25 70.

Neska garbiketa lanak egiteko gertu. 943 76 45 02 (M. Karmen).

Emakumeak etxeak garbitu eta edadetuak zaindu. 943 76 09 33.

Etxe lanak, haurrak zaindu edo dendari lanak. 943 76 60 56 (Joana).

Neska edozein lanetarako gertu. 943 76 00 24.

22 urteko mutilak lan egingo luke zapatuetan (baserri lanak...). 943 78 26 77 (Arkaitz).

Emakumea goizez lanetarako gertu. 607 326 706.

Etxe lanak edo plantxa orduka. 943 76 54 82.

Etxeak orduka edo atariak. 943 76 13 46.

Txoferra lanerako pertsona C eta C-1 gidabaimena eta garraioetarako dituenak. 943 76 30 34.

Pisua konpartituko nuke. Deitu 667 52 48 98 telefonora (Andres).

Garajea salgai Torrekuan. 943 76 28 24/ 39 49 78.

ERRENTAN HARTZEKO

Garajea hartuko genuke. Deitu 943 76 23 68 telefonora (Maite).

EROSI

Lokal komertziala erosi nahi nuke S. Lorentzon. 300 m². 607 82 53 06.

2. GARAJEAK

K. Eleizalde. 943 76 36 34.

Bolu. 943 76 19 69.

Zubiaurren garajea hartuko nuke. 943 76 08 26.

ERRENTAN EMATEKO

Bolun (100 m²) eta Arruriagan (18 m²) lokalak alokairuan. 606 96 23 80.

SALDU

Antzuolan, Zurraategin. 943 76 64 00.

Ibargarai. 943 76 44 25.

Garajea salgai edo alokairuan. 943 76 22 22.

3. LOKALAK

SALDU

Zubiaurren. 100 m². 13,5 milioi. 943 76 11 13.

Mugertzako gainean 35 m²ko lokala alokairuan. 943 76 21 49.

Antzuola, Kalegoi. Deitu 943 76 47 16 telefonora.

ERRENTAN EMATEKO


Zubiaurre. 943 76 23 53.

S. Lorentzo. 943 76 18 01.

Lokala alokairuan Martokan. 943 76 11 13.

Masterreka (Pertxa zapian). 696 460 406


Errentan edo salgai Ibargarain. 943 76 20 07.



Ur-bide
I T U R G I N T Z A

Zubieta 28, behea
BERGARA
943 76 00 57
630 261 617

Sasoiko menu bereziak!



Zapaturo afariak, zuzeneko musikarekin!

San Juan auzoa, Elgetako bidea, Bergara. Tf. 943 76 35 51.

Aretxabaletako jatetxe batean SUKALDARIA behar dugu 943 79 24 58

Tabernarako ZERBITZARIA behar dugu 943 76 59 19

BILTEGIRAKO mutil gaztea behar da 943 76 01 41

Klinika laguntzaileak gaixoak edo zaharrak zainduko lituzke. 609 77 01 33 (Asis).

Mutil gaztea informatika lanetarako gertu. 619 15 44 06 (Fran).

Haurrak zaindu edo dendan. 943 76 54 48.

Neska bat goizez garbiketarako egiteko gertu. 943 76 38 73.

Neska lanerako gertu. 943 76 00 90.

ESKAERAK

Neska behar da: etxeko lanak eta umeak zaintzeko. 943 76 01 57.

Denda orduetan umeak zaindu eta etxeko lanetarako neska euskalduna. 943 76 13 23.

5. IRAKASKUNTZA

ESKAINTZAK

Ingeles eta frantses klaseak. 943 76 33 26 (Agurtzane).

Kitarra, soinu eta pandero klaseak ematen ditut. 943 76 45 73.

Ingeles filologian

lizentziatuak ingeles klaseak. 943 76 30 28.

LH, DBH eta DBHO. Arazoak dituztenentzat. 656 75 27 39 (Ainara).

ESKAERAK

Pertsona bat behar da 11 urteko mutiko bati partikularrek emateko. 943 76 46 49.

6. IBILGAILUAK

SALDU

Iveco Pegaso furgoneta-kamioia (SS-AP). Garraiorako txartel nazionalarekin. 943 76 42 01.

Fiat Tipo 16v. (SS-AM). 943 76 06 53.

Puch motorra. 30.000 pezeta. 943 76 29 95.

Opel Astra 1.6 GT. 943 76 00 12 (gavez).

Kawasaki Vulcan motorra (500 cc.). 21.000 kilometro. 943 77 08 69.

Suzuki motorra egoera onean. 943 76 37 83 (Jose Mari, 10:00-17:00).

Ford Escort familiarra (SS-AK) egoera onean. 656 74 49 14.

Kadett 1.4. 630 750 099.

Volkswagen Golf GTI (SS-AB). 943 76 45 13.

Renault 21 (SS-Z). 943 76 26 92.

Kawasaki Vulcan motorra (500 cc.). 617 76 67 60 / 943 76 27 00.

7. ANIMALIAK

SALDU

Boxer arrazako txakurkumeak. 696 05 73 46.

Txahalak eta bildotsak izozkailuan sartzeko; labeldunak; natural hazita. 689 541 861.

8. DENETARIK

SALDU

Hapro solariuma. Egoera onean. 943 76 51 76.

Ekonomika, iturriko zein bergailuko ura berotzeko. 943 76 62 36.

Imar karro-denda. Egoera eta prezio ona. Deitu 943 76 59 56 telefonora.

Bateria salgai. Merke. 943 76 50 77 (Manu).

366 MH Pentium ordenadorea. 2 GBko disko gorrak, CD eta telebista-plaka. 943 76 19 16.

NAD 716 errezeptorea, Dolby Surround eta bi bafle. 943 88 73 13.

Aulkiak eta mahaia. 943 76 46 90.

Jangelako mahaia eta sei aulki. 943 76 34 48.

EMAN

1-7 urte bitarteko umeendako erropa eta bainera, konketa eta komuna opari. 943 76 44 34.

GALDU


Loro gris buztangorri batek ihes egin dit. Deitu 943 76 26 92 telefonora.

Betaurrekoak. Fundan, Apaolaza jartzen du. 943 76 60 18.

Game Boy urdina. Frontoian. 943 76 39 11. Eskertuko da.

AURKITU

Betaurrekoak Pol-Poleko iturrian. 943 76 28 19.



Langai

Euskal Lan Zerbitzua

INGENIARI TEKNIKOA
Durangaldea. 27900/4

TORNU KONBENTZIONALEKO LANGILEA
Bilbo. 26595/6

AHOLKULARIA/KONTSULTARIA
Debabarrena. 28753/1

KOMERTZIALA
Bilbo. 26883/2

INTERNET IRAKASLEA
Debabarrena. 28952/1

SOLDATZAILEA
Gernika-Bermeo. 26859/2

INTERNET IRAKASLEA
Debagoiena. 28953/2

BEIRAGILEA
Bilbo. 27022/3

YOGA IRAKASLEA
Bilbo. 28905/2

DIESEL MOTOREEN MEKANIKARIA
Bilbo. 27093/2

TENIS MONITOREA
Bilbo ingurua. 28902/1

INFORMATIKA IRAKASLEA
Bilbo. 27282/1

PROGRAMATZAILEA
Bilbo. 28200/3

TELEKOMUNIKAZIO ARLOKO KOMERTZIALAK, 2
Bilbo. 28707/1

INDUSTRI DELINEATZAILEA
Debabarrena. 27391/6

KOMERTZIALA
Bilbo. 26884/2

KABLEATZAILEAK, 2
Gasteiz. 27682/4

KOMERTZIALA
Bilbo. 28190/2

KABLEATZAILEAK
Donostialdea. 27683/5

Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.
Langai Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00era.
Telefonoa: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

BINILO FESTA

d.j. charli

Otsailaren 19an
22:00etan


BINILOAK BAKARRIK

NAHIKARI taberna

Masterreka 20 Tf. 943 76 57 71



GRUPO ZURICH
ASEGURUAK



Gurutzne Elkoro Gabilondo Barrenkalea 44, behea
Tf./Faxa: 943 76 57 85

ITURRIETA



Arraga auzoa
Tel.: 945 44 53 85
ARAMAIO

Amodiozko Gutunen sari-banaketa

Irabazleek beraien gutunak irakurri zituzten kitarraren musika lagunduta

Ohizkoa denez, San Balentin egunean egin zen aurtengo Amodiozko Gutunen Lehiaketako sari banaketa Kartzela Zaharrean. Astelehena zela kontuan hartuta, jende dezente bildu zen.

Iluntzeko zazpiak aldean eman zitzaion hasiera ekitaldiari, Aitzol Mujika eta Ibon Larrañaga musikarien emanaldiarekin. Ondoren, irabazleek beraien sariak jaso, eta Ibon Larrañaga kitarrajoleak lagundurik, saritutako gutunak beraien egileen ahotik entzuteko aukera izan zuten ekitaldira joandako guztiek. Epaimahaikideak izan ziren sariak banatu zituztenak; han izan ziren Unai Iturriaga, Jasone Osoro eta Xabier Larrañaga. Mikel Urdangarinek bakarrik huts egin zuen, Eskozia aldean baitabil. Sari banaketaren ostean, luncharen ordua heldu zen, eta nahikoa jan eta edateko aukera eskaini zieten Jardunekoei bertan bildutakoei.

Aipatu behar da, bestalde, ez zela BERRIGARA izan Kartzela Zaharrera hurbildu zen komunikabide bakarra; han izan ziren Euskal Telebistako "Bertatik



Daniel Martirena, Maialen Aizpiolea, Ion Sanchez eta Etorne Lejarza epaimahaikideekin.

Bertara" saioko eta Arrasate Telebistako kamara eta kazetariak ere. Urteetik urtera indarra hartzen ari da orain dela zortzi urte jaio zen lehiaketa hau. Horren lekuko da ia 40 komunikabidetan

egin zaiola tartetxo bat lehiaketari, eta Maialen Aizpiolea irabazleak saio askotara joan behar izan zuela San Balentin egunean. Ia ba, urte askoan eusten dion oraingo arrakastari.

Bergarako historia ezagutzeko hitzaldi ziklo interesgarria


San Joxepe jubilatuen elkarteak Bergarako historiari buruzko hainbat hitzaldi antolatu ditu otsailaren 23an hasi eta martxoaren 15a bitartean. Guztira, lau hitzaldi eskainiko dira, eguazteno, 19:30etan Migel Altuna zaharrean. Lau historialari ezagunek emango dituzte hitzaldiok, denak ere Udalak argitaratu zituen Bergarako historiari buruzko liburuen egileak.

Datorren eguaztenean, hilaren 23an, emango zaio hasiera hitzaldi zikloari "Bergara eta inguruko aurrehistoria" izenburupean Xabier Larrañaga Historia irakasleak eskainiko duen hitzaldiarekin. Bigarren hitzaldia martxoaren 1ean izango da, eta Bergara he-

rriaren jatorriaren ingurukoa izango da; Erdiaroko Bergarara hurbilduko gaitu Alberto Santana historialari ezagunak.

Hurrengo astean, martxoaren 8an, Juantxo Madariaga UNEDeko eta NUPko irakasleak, Antzinako Errejimeneko Bergarako ekonomia, gizartea eta kultura ezagutzeko aukera eskainiko digu.

Azkenik, hitzaldi sorta honekin amaitzeko, martxoaren 15ean, Bergararen hurbilagoko historiari mintzatuko da Jose Maria Garmendia, "Politika Bergaran XIX. eta XX. mendeetan" izenburupean. Hitzaldi honetan, besteak beste, karlista eta liberalen presentzia Bergaran eta sozialismo eta nazionalismoaren sorrera jorratuko ditu.



Udalak argitaratutako liburuen egileak izango dira hizlari.



Joan zen eguakitzean eman zitzaion hasiera, Azkarrak eta Jota Apurtu taldeekin.

Martxan da "Bergara ezagutzen" lehiaketa Jardunen eskutik

Urtarrilean hastekoa zen arren, aste batzuk atzeratu eta azkenean, martxan da jadanik Jardunek gaztetxoentzat antolatu ohi duen "Bergara ezagutzen" lehiaketa. Joan zen eguakitzean, hilaren 11n, jokatu zen lehendabiziko norgehiagoka. Aurten, 8 taldek eman dute izena, bakoitza 15 lagunez osatua. Aurtengoan, Izaro Aperribai eta Ane Miren Zabala arituko dira aurkezpen lanetan.

Parte hartuko duten taldeek, hainbat gairi buruzko galderak eta era guztietako frogak gairiditu beharko dituzte. Saillkapenak puntuazioaren arabera egingo dira. Horrela, lehenengo fasean zortzi talde haueetatik, puntuaziorik altuena lortzen duten lau taldeak sailkatuko dira, eta bigarren fasean lau haueetatik puntu gehien lortzen duten biak pasatuko dira finalera. Esan bezala, jo-

an zen eguakitzean jokatu zen lehendabiziko txapelketa lehen fase honi hasiera emanez, eta Azkarrak eta Jota Apurtu taldeak aritu ziren bertan elkarren kontra. Gaur, eguakitzza, Petu-Petuan eta Jakintsuak taldeen txanda izango da. Hilaren 25ean jokatu da hurrengo norgehiagoka, Asmaizu eta Misfits taldeekin, eta lehen fase honi amaiera emateko, Hik galdeu eta Badakitx izango dira Kartzela Zaharreen lehiatuko direnak.

Esan bezala, "Bergara ezagutzen" lehiaketa eguakitzero jokatu da Kartzela Zaharreen iluntzeko 19:30etan. Antolatzaileek jende guztia animatu nahi du txapelketetara joateko. Beraz, nahi duen guztiak zabalik izango ditu ateak jokalaria animatzera joateko, eta, bide batez, baita gure herriari buruz zerbait gehiago ikasteko ere.

Susana Gomezen margoak Nahikarin

Artista gazte baten oleo erakusketa daukagu ikusgai oraingo honetan Nahikarin. Susana Gomez da bera, eta 16 urte ditu. Zortzi urterekin hasi zen marrazketa klaseak hartzen, eta hamarrekin, berriz, oleoa jorratzen. Ordutik hona, koadro mordo egin du, eta hau da bere lehendabiziko bakarkako erakusketa; uda partean erakusketa kolektibo batean ere parte hartu zuen bere zenbait oleorekin.

Ikusgai dauden koadroak bodegoiak eta paisaia errealistak dira. Erretratuak ere egiten ditu, baina bere esanetan, "erretratuak oleoan egitea oso zaila da, figurak normalean arkatzez marrazten ditut; oleoan, batez ere paisaiak eta bodegoiak egiten ditut". Joan zen astean zabaldu zen erakusketa hau, eta martxoaren 3ra arte izango dira ikusgai gazte honen lanak.



Susana Gomez, 16 urteko artista gaztea.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55

KONDE



Burdinate 1
☎ 943 76 02 57

P
A
N
A
D
E
R
O
K
U
A

denborapasa

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

Ezker eskuma

1. Lengoaiak.
2. Arautegia. Arabako alderdi espainiarra.
3. X. hilabetea. Hitlerren jarraitzaile.
4. Aparkatzeko zerga. Hodiak.
5. Interjekzioa. Metal garesti. Uranioa.
6. Asiako estatua. Ikas eta Ari.
7. Musika nota. Zauriaren arrastoa.
8. Hasi. Bokala. Gironako ibai.
9. Bokala. Hidrogenoa. Ihaute-ri.
10. Abelen anaia. Gari-sorta.

Goitik behera

1. Botoa ematen dutenak.
2. Pl., komunikabide mota. Bokala.
3. Nafarroa Behereko herria. Röntgen. Landare mota.
4. Akuri. Zuen, hari. Nitrogenoa.
5. Udan etortzen den turista. Iodoa.
6. Naizen hau. Zuloaren erdian. Infin., behatu.
7. Hesola. Lehena eta azkena.
8. Kontsonantea. Idoroa.
9. Auzo, hitz elkarketan. Piriniotako gailurra.
10. Ergel. 100 m².

Soluzioa

10. Kalku. Area.
9. Auzo. Aneito.
7. Tantara. Az. 8. Z. Aurkitua.
5. Udatar. 1. 6. Ni. Ul. Beha.
3. Zoro. R. Ihi. 4. Kui. Zion. N.
1. Hautseak. 2. Irratak. A.
Goitik behera
9. A. H. Ihaute. 10. Kain. Azaoa.
7. La. Oraina. 8. Ekin. E. Ter.
5. Eri. Zilar. U. 6. Siria. IKA.
3. Urra. Nazi. 4. TAO. Tutak.
1. Hizkuntzak. 2. Araudia. UA.
Ezker eskuma

bonofotoa




Miguel Angel Elkorobereziabar

Zein da txoko honen izena?

galde debalde

Arretaz irakurri duzu Berrigara? Ea galdera hauei erantzuten diezun!

1. Zuhaitz Astearen barruan, 100 gaztainondo landatuko dira zapatuan. Non?
A- Pol-Polen
B- Gorlan
C- San Martzialen
2. Zeinen aurka jokatu du zapatuan Agorrosinen BKEko futbol talde nagusiak?
A- Real Sociedad B
B- Sestao River
C- Baskonia
3. La Polla taldea Jam aretoan izango da zapatuan. Zein taldek joko du aurretik?
A- Non Demontre
B- Nola Demontre
C- Ze Demontre



Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!



Aurreko aleko saria, **Ainhoa Alonsorentzat** izan da: 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Ainhoari! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Errekalde Jauregia** Galde Debalde: **1-C, 2-B, 3-A**

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: 2: 3:

Izen-deiturak:

Telefonoa:

Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!

Colon
xaboa, 15 ontzitzo
599 PTA!
Super BMen beti eskaintzarik onenak!

Bergarako frontoian orain dala 42 urtetik dihardu lanian, eta danetik egin dau bertan: akomodadore, epaille, pelotak ipini, mantenimendua, markagailua... Itziarkua jaiotzez, 80 urte dittu.

Epaille jardutia ezta lan makala...

Ez da lan atsegiña, frontoian dirua jokatzan dalako. Atxikixa zala eta, makiña bat buruhauste izan giñuan.

Ezagutu dozun pelotaririk onena?

Konpletuena, duda barik, Julian Retegi. Ogeta, Soroa, Azkarate, Barberito... be onak izan die.

Eta Bergarakuen artian?

Onenak orainguak eta, batez be, Zezeaga.

Gaur egunian, gustukuen dozuna?

Titin. Forma danetan sartzen da: sotamanoz, boteprontoz, boleaz eskumiarekin, ezkerreko gantxua, pelota txarrak jaso...

Goñi?

Jaungoikuak sekulako fakultadiak emon dotsa, baiña ez dauka bururik.

Bibitakua irabazteko aukerarik badauka Zezeagak?

Bai. Gaiñera, Errasti min hartuta dago eta bera barik Unanue asko jaisten da.

Olaizolarekin ala Goñirekin hobeto?

Olaizolarekin, Goñi baiño seguruagua da.

Bergaran tokatu jatzun partidurik ikusgarrixena?

Retegi I.ak eta Tapiak manomanuan jokatu zeben bat: 21na berdindu zeben, eta Retegik irabazi zeban azkenian. Tapiak txiza odola eitxen zebala bukatu zeban.

Gehixen gustatzen jatzun frontoia?

Onena Bergarakua. Lehenguan, Antton Maizek be esan zostan: "joño, ederki dau-

Lorentzo Arrizabalaga

kazue frontoia!". Ezker paretia konpunduta dago eta pelotarixei frontisa eta zorua gustatzen jakue. Retegik esaten zeban zorurik onena Bergarakua zala, eta Belokirendako be pelotia iñun baiño hobeto irtezen da frontisian eta zoruan jo eta gero.

Zapatuan frontoia ikusitta pozik...

Bai, Vidartek esan zostan dana ondo irten zala eta gustua emoten dabela ona etortziak. Ahal dan aguruen bueltauko ziela esan zostan.

Telebisiñotik ikusten dozu pelotia?

Batez be ETBn, hobeto emoten dabelako eta normalago berba egitten dabelako. Telecincon, "velocidad de vertigo" eta holako txorrada mordo bat esaten dittue.

Egunian zihar zer egitten dozu?

Goizian, Frontoira. Zeozer egitteko badago egin eta, ondoren, pasiatzera. Bazkalostian, beste buelta bat eta Jubilauetara; musian egin, meriendau eta etxera.

Zeozerrekin haserretzen zara?


Ez, bakezalia naiz. Eta politika kontuetan ez dot entenditzen.

Asteko egunik onena?

Danak igualak die neretako.

Telebisiñorik ikusten dozu?

Goenkale, Telediarixua, animalixen inguruko programak, "Corazon Corazon"...



ezpeleta

Ostalaritzarako ehungintza

Ostalaritza eta egoitzetarako mahai-zapi eta industri-ehunak

San Lorentzo 1, Bergara
Tf. 943 76 28 77/Tf. eta faxa: 943 76 17 09

Usoa Pub



☎ 943 76 38 57
Irala 1

Gracian

usaindegia, mertzeria eta...

in duterietarako
osagarriak!

Bidekurutzeta 6
Tf: 943 76 10 25

Ganbara

TABERNA

Heure erara
ibiltzeko!

Irala z/g. Tf. 943 76 55 75

Irala 3
Telefona:
943 76 48 26



IRRINTZI
k a f e t e g i a



Ibarra tabernan, 1955 aldera

Ehun urte pasa zabalik izan ondoren, Zubiaurreko Ibarra taberna itxi egin zen joan zen urtarrilaren azkenetan, tabernako arduradunei jubilatzeke ordua heldu zaie eta. Auzokideen errefentzietako bat izan da taberna joan zen mendetik, eta ziur gaude jabeek eta bertara joateko ohitura zutenek hutsune nabaria igarriko zutela azken asteotan. Goiko argazkia 1955 urtearen inguruan aterata dago eta hor dugu lagun koadrila bat kamara aurrean, dotore jantzita. Lagunartean berriketan egiteko, txikitorren bat edo beste hartzeko edo kartetan egiteko to-

ki aproposa zen orduan ere taberna eta Itziar Ibarra Romanen alabak esan digunez, "Se vende vino tinto y blanco" zioen kartel bat zegoen barra ondoan. Argazkian agertzen direnak honako hauek dituzue, ezkerretik eskumara:

Migel Muruamendiarrak "Sapa", Pako Manzidor, Inazio Ibarzabal "Torre" (aurrean, txapel-duna), Pedro Etxenagusia, Roman Ibarra (tabernaria), Roman Larrañaga, Blas Agirrebarrena, Luis Intxausti eta Eustakio Barrutia (jarrita dagoena).

Argazkia: Itziar Ibarra

ADI!

Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, BERRIGARARA bertara ekar dezakezu. Errotalde Jauregian gaituzu, zatoz!



☎ 943 76 20 61



zumelaga

JATETXEA

54 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25



MAPFRE

...Problemarik gabe

Urtarrilean eta otsailean gure bulegoetara etortzearekin

bizikleta bat eta txirrindulari ekipoa irabaz ditzakezu

Simon Arrieta plaza 3, Bergara. Tf. 943 76 18 80.

*Zure bizi-kalitatea
asegurutzen dugu*

UGARTE

A R O Z T E G I A

Apainketa • Altzariak
Ateak • Armairuak

San Juan, 1 • (Gasolindegia-aren parean) • BERGARA • Tel./ Faxa: 943 76 54 91

JAKINA

FAGOR altzarien Bergarako banatzaile bakarra

Zure etxeko
sukaldea berritu eta
altzariak jarri aurretik,
zatoz Jakinara.

Diseinua,

kalitate/prezio erlazio

bikaina eta

saldu osteko zerbitzu

ezin hobea

eskaintzen dizugu.



6 URTEKO
GARANTIA

FAGOR

Sukaldeko altzariak

JAKINA, bainugelak, zeramika eta sukaldeak

San Lorenzo Industri Poligonoa, Amillaga 10, behea. BERGARA.

Telefona: 943 76 03 30. Faxe: 943 76 02 91.